

Ekonomia Publikoa: Gastuak

- 1. Gaia. Ekonomia publikoaren ikasketa**
 - 1.1. ekonomia publikoa: edukina, helburu nagusiak, ikuspegiak
- 2. Gaia. Sektore publikoa eta aurrekontua**
 - 2.1. Sektore publikoa: jarduerak, agenteak, neurketa
 - 2.1.1. Jarduerak eta agenteak
 - 2.1.2. Sektore publikoaren neurketa
 - 2.2. Administrazio publikoen kontuak
 - 2.3. Sektore publikoaren aurrekontua kontzeptua, ezaugarriak eta aurrekontu prozesua
 - 2.4. Aurrekontuaren sailkapenak
 - 2.5. Defizit publikoa:
- 3. Gaia. Esku-hartze publikoa eraginkortasuna eta ekitatea lortzeko.**
 - 3.1. Esku-hartze publikoaren zergatia eta tresnak
 - 3.2. Esku-hartze publikoa eraginkortasuna lortzeko
 - 3.2.1. Merkatu konkurrentzialak eraginkorrak al dira?
 - 3.2.2. Merkatu-akatsak
 - 3.2.2.1. Konkurrentzi ez perfektu
 - 3.2.2.2. Monopolio naturala
 - 3.2.2.3. Ondasun publikoak
 - 3.2.2.4. Kanpo eraginak.
 - 3.2.2.5. Beste merkatu-akats batzuk
 - 3.3. Esku-hartze publikoa ekitatea lortzeko
 - 3.3.1. Ekitate birbanakorra eta gizarte-liberalismoa
 - 3.3.2. Ekitatearen beste ikuspegi batzuk
- 4. Gaia. Gizarte -hautespena eta sektore publikoaren portaera**
 - 4.1. Gizarte-hautespeneren arazoa
 - 4.1.1. Sarrera
 - 4.2. Gehiengoaren botuaren bidezko hautespena:
 - 4.3. Gizarte-hautespenerako erregelen trukaketa
 - 4.4. Sektore publikoaren portaera:
 - 4.4.1. Burokratak
 - 4.4.2. Politikari eta boto-emaileak
 - 4.4.3. Presio-taldeak
 - 4.5. Sektore publikoaren horniduraren akatsak
- 5. Gaia: gizarte-gastuak**
 - 5.1. Sarrera
 - 5.2. Lehentasunezko ondasunak
 - 5.2.1. Sanitatea
 - 5.2.1.1. Hornidura publikoaren justifikazioak
 - 5.2.1.2. Hornidura publikoan bi eredu
 - 5.2.2. Hezkuntza
 - 5.2.2.1. Hornidura publikoaren justifikazioak
 - 5.2.2.2. Hezkuntzaren hornidura publikoa:
 - 5.2.3. Etxebizitza
 - 5.2.3.1. Parte-hartze publikoaren justifikazioak:
 - 5.2.3.2. Etxebizitza politika publikoak
 - 5.3. Prestazio ekonomikoak: errentak ordezkatzeko programak pobrezia-aurkako programak
 - 5.3.1. Errentak ordezkatzeko programak
 - 5.3.1.1. Errentak ordezkatzeko programen justifikazioa
 - 5.3.1.2. Errentak ordezkatzeko programen justifikazioa

1. GAIA. EKONOMIA PUBLIKOAREN IKASKETA

1.1. Ekonomia Publikoa: Edukina, helburu nagusiak, ikuspegiak

A. EDUKINA eta HELBURU NAGUSIAK

- Ekonomia Publikoak, merkatu-ekonomia batean agintari publikoek burutzen duten esku-hartzea aztertzen du,
- Sektore Publikoen bi helburu nagusirekin erlazionatzen dira: Baliabideen esleipen eraginkor bat lortu Herrialde bateko errenta eta aberastasuna birbanatu

B. IKUSPEGIAK:

- Ekonomia Publiko Positiboa: IZAN Teorikoki eta ikerketa enpirikoaren bidez, Sektore Publikoaren funtzionamendua aztertu nahi du
 - Ekonomia Publiko Normatiboa: IZAN BEHAR Dauden murriztapenak kontuan harturik, lortu nahi diren helburuak lortzeko biderik egokienak proposatzen ditu
-

2. GAIA. SEKTORE PUBLIKOA ETA AURREKONTUA

2.1. SEKTORE PUBLIKOA: Jarduerak, agenteak, neurketa

A. JARDUERAK ETA AGENTEAK

- Sektore Publikoa Tradizionalaki: ESTATUAREN ADMINISTRAZIOA BERMATZEAZ arduratzen den agente-multzoa
 - Funtzio tradizionalak: Administrazioaren zerbitzu orokorrak, Defentsa, Justizia, Herri-Segurtasuna, Kanpo-Harremanak...
- Denborarekin, 2 FUNTZIO BASIKO:
 - GIZARTE-ONGIZATE POLITIKA GARATU: Gizartean bizi-baldintza duinak bermatu nahian (PENTSIOAK -LANGABEZIA -POBREZIA -ETXEBIZITZA -SANITATEA -HEZKUNTZA -...)
 - ZERBITZU AMANKOMUNAK ANTOLATU: Beste modu batera, gizartearentzat desiragarri den neurrian hornituko ez liratekeenak (AZPIEGITURAK -IKERKETA ETA GARAPENJARDUERAK -...)

Funtzio horiek betetzen dituen AGENTE-MULTZOA: **ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK, SPADMINISTRATIBOA edo SP "ZENTZU HERTSIAN"**

- AAPPen DEFINIZIOA, EUROPAKO KONTU-SISTEMAN
 - AAPPak, oinarrizko funtzio bezala
 - 1) salmentara zuzenduko ez diren ondasun eta zerbitzuen hornidura eta/edo 2) errenta / aberastasunaren birbanaketa operazioak burutzea duten erakundeek osatzen dituzte, beren baliabide iturririk garrantzitsuena beste sektoreetako unitateek (enpresek, familiek...) egindako nahitaezko ordainketak (hau da, zergen ordainketa) izanik"

ESPAINIAN, AAPPen AGENTE OSATZAILEAK

- ADMINISTRAZIO ZENTRALA
 - ESTATUA:

- a) Estatuaren Administrazio Orokorra: Gobernua, Ministerioak ,...
 - b) Konstituzio-organoen Administrazioa: Errege-Etxea, Gorte Orokorrak, Auzitegi Konstituzionala, Kontu-Auzitegia
- ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN ERAKUNDEAK
 - - Erakunde Autonomoak: Estatistika-Institutu Nazionala, Turismo-Institutu Nazionala, Emakumearen Institutua, Liburutegi Nazionala, Trafikoko Buruzagitza ...
 - -Agentzia Estatalak: Politika publikoak ebaluatzeko Agentzia, Meteorologiako Agentzia Estatala ,
 - -Beste erakunde publiko batzuk: Zerga-Administrazioko Agentzia, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua, El Prado eta Reina Sofia Museoak ,...
- LURRALDEERAKUNDEAK
 - AUTONOMIA-ERKIDEGOAK
 - UDAL -KORPORAZIOAK
- GIZARTESEGURANTZAREN ADMINISTRAZIOA
 - a)Erakunde Kudeatzaileak eta zerbitzu Amankomununak: INSS, INGESA, IMSERSO , ISM, : GS-ren Diruzaintza Orokorra, mutualitate laguntzaileak
 - b) SEPE: Enplegurako Zerbitzu Publikoa
 - c)FOGASA: (Alokairuen Bermerako Funtsa)

Beraz, AAPPak, enpresa-jarduerak ez diren jarduera publikoez arduratzen dira.

Enpresa-jarduerak barneratzeko: **SEKTORE PUBLIKOA “ZENTZU ZABALEAN”**

- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK edo SEKTORE PUBLIKOA “zentzu hertsian”
+ SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA
- SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALAREN (ENPRESA PUBLIKOEN) definizioa, EUROPAKO KONTU-SISTEMAN
 - “Enpresa publikoak,
1) merkatuan salduko diren ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean diharduten (salmenta-sarrerekin gutxienez ekoizpen-kostuaren %50 estaliz) eta
2) kontrol publikoaren pean dauden edo jabetza publikoa duten erakunde, zerbitzu eta enpresak dira”

AGENTEAK: SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALA

- Enpresa Publiko EZ FINANTZARIOAK: Turismo-paradoreak, Posta-zerbitzu publikoa, EFE Agentzia, AENA, Estatuko Loteriak ...
- ERAKUNDE PUBLIKO FINANTZARIOAK: -Espainiako Bankua -Kreditu-erakundeak eta finantza-bitartekari publikoak: ICO, Banku eta Aurrezki-kutxen gordailuen bermerako funtsak.. -Aseguru-Erakundeak: Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoa,...

EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA, ZENTZU HERTSIAN

- E.A.Eren SEKTORE PUBLIKOA
 - ADMINISTRAZIO OROKORRA:
 - a) EUSKO JAURLARITZA (lehendakaritza + sail ezberdinak)
 - b) EUSKO LEGEBILTZARRA

- c) HAINBAT SAIL: Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan-Harremanen Kontseilua...
 - ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ERAKUNDEAK :
 - -Erakunde Autonomo Administratiboak: Habe, Eustat, Emakunde, Lanbide...
 - -Beste erakunde publiko batzuk: Osakidetza, EITB...
- LURRALDE HISTORIKOEN SEKTORE PUBLIKOA
 - LLHHen Administrazio Forala:
 - -Foru Aldundiak
 - -Biltzar Nagusiak ERAKUNDE AUTONOMO FORALAK
- UDALEN SEKTORE PUBLIKOA

B. SEKTORE PUBLIKOAREN NEURKETA

Zein da Sektore Publikoaren pisua ekonomian?

- Erantzun zaila •Jarduera publiko askok ez dute moneta-izaera. Datu homogeneoak falta, sektore publikoaren erakundeen aldaketengatik
- Ohiko neurketa modua: Errazago neur daitezkeen moneta-izaera duten jarduerak aztertu, hau da, Administrazio Publikoen aurrekontujarduerak
- Nazioarteko konparaketetan INDIZE AGREGATU erabilienak, jarduera publikoaren garrantzi erlatiboa ezagutzeko:
 - Gastu ez finantzarioak / BPG
 - Sarrera ez finantzarioak / BPG

GASTU EZ FINANTZARIOAK:

- Azken gastuak
 - Gastu arruntak (langileei ordainketak, kontsumoak...)
 - Kapital gastuak (inbertsioak)
- Transferentzia gastuak Transf arruntak (pentsioak, beka, enpresei subentzioak...)
 - Kapital transferentziak (inbertsioak burutzeko)

SARRERA EZ FINANTZARIOAK:

- Zerga-sarrerak (Presio fiskala = zerga- sarrerak/BPG)
 - Zerga zuzenak
 - Zeharkako zergak
 - Gizarte kotizazioak
- Bestelako sarrerak

2.2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTUAK

- Kontabilitate Nazionalaren laguntzaz, AAPPen jarduerari buruzko informazio gehiago lor dezakegu
- Kontabilitate Nazionalari esker, ekonomiako sektore ezberdinek (Etxeak, Irabazi Animorik Gabeko Erakundeak, Sozietate Ez Finantzarioak, Finantza-Erakundeak, AAPP eta Gainerakoak) makromagnitudeen eraketan (BPG, Kontsumoa, Aurrezki,...) laguntzen dutena jakin dezakegu.
- Kontabilitate Nazionalan, AAPP jarduera ekonomikoa hiru kontuen bidez laburbiltzen da:

- ERAGIKETA ARRUNTEN KONTUA
- KAPITAL KONTUA
- FINANTZA KONTUA

ERAGIKETA ARRUNTEN KONTUA

<p>BALIABIDE ARRUNTAK</p> <p>A) Zergak -Errenta eta ondarearen gainekoak -Ekoizpen eta inportazioen gainekoak -Gizarte-Kotizazioak</p> <p>B) Jasotako transferentzia arruntak (Europako Gizarte-Funtsa, isunak...)</p> <p>C) Bestelako baliabide arruntak -Jabetzaren errentak (interesak, dibidenduak Alkilerak...) -Ekoizpenaren baliabideak (salmenta-sarrerak, tasak, prezio publikoak...)</p>	<p>ERABILERA ARRUNTAK</p> <p>D) Emandako transferentzi arruntak -Gizarte-prestazioak -Subentzioak -Zor Publikoaren interesak -Bestelako transferentzia arruntak</p> <p>E) Kontsumo Publikoa -Langileei ordainketak -Erosketak -KFK</p> <p>F) AAPPen AURREZKI (+) edo DESAURREZKI (-) GORDINA (Eragiketa Arruntaren Kontuaren saldoa)</p>
--	--

BALIABIDE ARRUNTAK – Emandako Transferentzi Arruntak = (A)+(B)+C) – D) =
AAPPen ERRENTA GORDIN ERABILGARRIA

AAPPen ERRENTA GORDIN ERABILGARRIA – Kontsumo Publikoa = **AAPPen AURREZKI (+) edo DESAURREZKI (-) GORDINA**

KAPITAL-KONTUA

<p>KAPITAL-BALIABIDEAK</p> <p>1) F) AAPPen AURREZKI edo DESAURREZKI GORDINA</p> <p>2) Kapitalaren g/ Zergak Oinordetza eta Dohaintzak..</p> <p>3) Jasotako Kapital-Transferentziak</p>	<p><u>KAPITAL-ERABILERAK</u></p> <p>4) Inbertsio Publikoa (Kapital Finkoaren Eraketa Gordina)</p> <p>5) Emandako Kapital-Transferentziak</p> <p>6) AAPPen FINANTZAKETA-AHALMEN (+) edo BEHARRA (-) (Kapital Kontuaren saldoa)</p>
--	---

KAPITAL BALIABIDEAK(1+2+3) – KAPITAL ERABILERAK (4+5) = AAPPen FINANTZAKETA-AHALMEN (+) edo BEHARRA (-) (Kontabilitate Nazionalaren terminoetan superabit edo defizita

FINANTZA-KONTUA

FINANTZA-BALIABIDEAK 1) Finantza-pasiboen aldaketa garbia (jaulkitako pasiboak – amortizatutako pasiboak)	FINANTZA-ERABILERAK 2) Finantza-Aktiboen aldaketa garbia (erositako aktiboak – amortizatutako aktiboak) 3) FINANTZA-AURREZKI GARBIA
---	---

FINANTZA -BALIABIDEAK – FINANTZA-ERABILERAK = FINANTZA-AURREZKI GARBIA (Kapital-Kontuaren saldoarekin egiten du bat baino alderantzizko zeinuarekin)

2.3. SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUA Kontzeptua, ezaugarriak eta aurrekontu prozesua

- DEFINIZIOA (NEUMARK, 1950): “Aurrekontua, printzipioz nahitaez betebeharreko gastuen aurreikuspenen eta gastu horiek finantzatzeko estimatutako diru-sarrerren laburpen sistematiko eta zifratua da, denboraldi erregularretan landu eta betearazten delarik”.
- **EZAUGARRIAK**:
 - Alde aurrea edo aurrerapena
 - -Aurreikuspena
 - Etorkizuneko operazioak (hurrengo urtea)
 - Kuantifikazioa
 - -Zifratua (kontabilitate-hizkuntza)
 - Kontableki orekatua
 - Oreka ekonomikoa (Defizit eta superabit ekonomiakoak egon daitezke)
 - Behartzea (derrigorrezkotasuna)
 - -Derrigorrezkotasuna gastuetan (muga maximoa)
 - Sarreretan ez: bilketaren estimazioak
 - Erregularotasuna
 - Erregularlari landu eta betearazi
 - Aurrekontu ekitaldiaren epea: urtea

AURREKONTU PROZESUA

Kronologikoki lau etapa bereizten dira:

1. ERAKETA

- Gobernuak Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua eratzen du.
- Alde aurrez, Gobernuak, aurrekontuaren egonkortasunerako helburuak eta gastu ez finantzarioaren muga maximoa onartu ditu (urtearen lehen lauhilekoan)
- Aurreko akordioak errespetatuz, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak gastuaren banaketarako irizpideak eta diru-sarrerren aurrekontua onartzen ditu (gastu organo ezberdinen eta ministerioen arteko estimazio, analisi eta dokumentazioelkartruke sakon baten ondoren).

- Ekonomia-tekniken aplikazioa batez ere etapa honetan ematen da.
- Orokorrean, 6 hilabetez luzatzen da. Urriaren 1ean Gobernuak onartuta izan behar du.
- Bestalde, Europako Batzordeak abenduaren 1ean baino lehen lege-proiektuaren irizpen bat onartu behar du, eta Egonkortasun eta hazkunderako Itunean ezarritako betebeharren ez-betetze larriren bat egiaztatuz gero, berrikuste bat eska dezake.

2. EZTABAIDA eta ONARTZEA

- Kongresuan lehenik, eta Senatuan gero, lege-proiektua eztabaidatu egiten da eta zuzenketak eskatu ahal dira.
- Hiru hilabetez luzatzen da
- Diputatuen Kongresuak Urtarrilak 1ean baino lehen onartu behar du .
- Data horretan ez badago onartuta, automatikoki aurreko urteko aurrekontua luzatuko da


3. BETETZEA

- Aurrekontuan onartutako gastuen eta operazioen betetze prozesua da
- Urtarrilak 1ean hasi eta urte naturalean zehar luzatzen da.
- Nahiz eta Aurrekontu Legearen edukia nahitaez bete behar den, egoera berezi batzuetan onartutako zifrak alda daitezke (ezohiko kredituak, zabalketak ...)
- Etapa honetan aurrekontuaren betetzearen kontrola “Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak” - “Intervención General de la Administración del Estado” delako erakundeak egiten du (barne-kontrola)

4. LIKIDAZIOA eta KONTROLA

- Aurrekontua abenduak 31an likidatzen da eta kanpokontrolaren etapa hasten da.
- Urriak 1ean baino lehen, Kontu-Auzitegiak (Gobernuarekiko erakunde independentea) Estatuaren Kontu Orokorra izan beharko du (Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak bidalita)
- Kontu-Auzitegiak Estatuaren Kontu Orokorra aztertu eta egiaztatzen du, 6 hilabetetako epean.

•Aurrekontu-prozesuak beraz hiru bat urte irauten du:



- A → Egonkortasunerako helburuak eta gastuaren muga maximoa onartu
- B → Eraketa
- C → Eztabaida eta onarketa
- D → Betetzea
- E → Estatu Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak Estatuaren Kontu Orokorra osatu
- F → Kanpo kontrola

2.4. AURREKONTUAREN SAILKAPENAK

AURREKONTUAREN FUNTZIOAK:

- Jarduera publikoen kontrola
- Erabaki publikoen eraginkortasuna eta efektibitatea bermatu, finkatutako helburuak kostu minimora lortzen direla ziurtatzeko
- **Tradizionalki:**
 - Sailkapen organikoa:
 - gastuak, euren erakunde kudeatzaileen arabera sailkatuta.
 - Soilik Kontrol funtzioa (nork eta zenbat gastatzen den)
 - BIDE-AURREKONTUA deitzen zaio SAILKAPENAK
- **Denborarekin:**
 - Sailkapen ekonomikoa
 - Gastu eta sarrerak, kontabilitate nazionalaren arabera atal eta banatuta
 - Jarduera publikoak, jarduera ekonomiko nazionalen duen eragina aztertzeke baliagarria
 - Sailkapen funtzionala eta egitarauen arabera (helburuen arabera)
 - HELBURUEN AURREKONTUA deitzen zaio (2 funtzioak bete)

Espanian, ESTATUAREN AURREKONTU OROKORREN SAILKAPENAK:

- Organikoa: Gastu-organoen arteko gastu kompetentzien banaketa. Nork gastatzen du?
- Ekonomikoa: Gastu eta sarrera mota ezberdinak, kontabilitate nazionalaren arabera. Nola gastatzen da? Nola lortzen dira sarrerak?
- Funtzionala eta egitarauen arabera: Zertarako gastatzen da? Zein helburu lortzeko? 2 mota:
 - Gastu-politiken arabera (Sektore Publikoaren jokaera arloen arabera)
 - Talde funtzionalen arabera ⇒ (funtzioak, azpi-funtzioak, egitarauak...) → informazio gehiago

Estatuaren Aurrekontu Orokorra? Norenak?

- SP "ESTATALA"renak, hau da, SPa "ZENTZU ZABALEAN" , agente hauek izan ezik:
 - LURRALDE-ERAKUNDEAK
 - LURRALDEEN SP enpresariala
 - Estatuak kontrolatutako Erakunde Pribatuak

Zer dira Estatuaren Aurrekontu Orokor BATERATUAK?

- Barne-organoen arteko transferentziarik gabekoa, kontabilitate bikoitza ekiditeko

2.5. DEFIZIT PUBLIKOA:

Kontzeptuak :

Aurrekontuak kontabilitate-oreka izan arren, defizit edo superabita izan dezake •

Defizit/superabit kontzeptu ezberdinak izan ditzakegu, faktore ezberdinen arabera:

- **Kontuan hartu diren erakundeen arabera:**
 - Kontuan hartzen diren ERAKUNDEEN ARABERA, Sektore Publikoa osatzen duten agente bakoitzaren aurrekontu-saldoa ezagutu daiteke. Estatuarena da azkarren eta modurik fidagarrien ezagutu daitekeena Nazioarteko konparaketetan gehien erabiltzen dena Administrazio Publikoaren saldoa da, AAPP finantzaketa-ahalmen edo beharra, hain zuzen ere
- **Kontuan hartu diren eragiketen arabera**

- Kontuan hartzen diren ERAGIKETEN ARABERA, hiru kontzeptu ezberdin bereiz daitezke:
 - Finantzaketa-ahalmen edo beharra
 - Superabit edo defizit primarioa
 - Zorpetze-ahalmen edo beharra
- Gastu eta sarreraren kontabilizazio unearen arabera
- Inflaziogatikoko doiketak egin diren ala ez
- Abaguneari ala egiturari lotuak izatearen arabera

•FINANTZAKETA-AHALMEN edo BEHARRA

- Kapital kontuaren saldoa da, hau da, diru-sarrera eta gastu ez finantzarioen arteko aldea
- Gastu arruntak eta kapital-gastuak estali ondoren, fondoren egoera adierazten du:

$$\begin{array}{|c|} \hline FA (+) \\ \hline edo \\ \hline FB (-) \\ \hline \end{array} = \begin{array}{|c|} \hline Baliabide arruntak \\ \hline + \\ \hline Kapital-baliabideak \\ \hline \end{array} - \begin{array}{|c|} \hline Gastu arruntak \\ \hline + \\ \hline Kapital-gastuak \\ \hline \end{array}$$

- Kontabilitate nazionalaren terminoetan AAPPen jarduera ekonomikoaren nazioarteko eta denbora arteko konparaketetan erabiltzen den neurria da.

SUPERABIT edo DEFIZIT PRIMARIOA

- Zor publikoaren interes-zama nulua izango balitz egongo litzatekeen Finantzaketa-ahalmen edo beharra. Hau da:

$$\begin{array}{|c|} \hline Superabit edo \\ Defizit Primarioa t \\ \hline \end{array} = \begin{array}{|c|} \hline FA_t edo FB_t \\ (bere zeinuarekin) \\ \hline \end{array} + \begin{array}{|c|} \hline I_t \\ \hline \end{array} \left\{ \begin{array}{l} > 0 SP \\ < 0 DP \end{array} \right.$$

non $I_t = i Z_{t-1}$

- Indarrean dagoen aurrekontuaren norabidea ezagutzeko aurrekoa baino baliagarriagoa.
- Nazioarteko konparaketetan, aurrekontu-politikaren sostengarritasun mailaren adierazlea.

ZORPETZE-AHALMEN edo BEHARRA (garbia)

- Finantza-pasiboen aldaketa garbia da
- Finantza-aktiboen aldaketa garbiari finantzaketa beharra batuz (edo finantzaketa-ahalmena kenduz) lortzen da:

$$\begin{array}{|c|} \hline Zorpetze -Beharra (+) \\ edo zorpetze-ahalmena (-) \\ (termino garbietan) \\ \hline \end{array} = \begin{array}{|c|} \hline Finantza-Pasiboen Aldaketa garbia \\ (jaulkitakoa - amortizatutakoa) \\ \hline \end{array} = \\
 \begin{array}{|c|} \hline Finantza-Aktiboen Aldaketa garbia \\ (erositakoa - amortizatutakoa) \\ \hline \end{array} - \begin{array}{|c|} \hline FA (+)edoFB(-) \\ \hline \end{array}$$

- Eragiketa guztiei aurre egiteko (ez finantzario zein finantzarioei) termino garbietan Sektore Publikoa termino garbietan zenbat zorpetu behar den adierazten du.

ZORPETZE-AHALMEN EDO BEHARRA ere termino gordinetan defini daiteke:

- Kasu honetan jaulkitako finantza-pasiboekin egiten du bat. Ondorioz:

$$\begin{array}{l}
 \boxed{\begin{array}{l} \text{Zorpetze -Beharra (+)} \\ \text{edo zorpetze-ahalmena (-)} \\ \text{(termino gordinetan)} \end{array}} = \boxed{\text{Jaulkitako Finantza-Pasiboak}} = \\
 \\
 \boxed{\begin{array}{l} \text{Amortizatutako} \\ \text{Finantza-} \\ \text{Pasiboak} \end{array}} + \boxed{\begin{array}{l} \text{Finantza-Aktiboen Aldaketa garbia} \\ \text{(erositakoa – amortizatutakoa)} \end{array}} - \boxed{\text{FA (+)edoFB(-)}}
 \end{array}$$

- Eragiketa guztiei aurre egiteko (ez finantzario zein finantzarioei) Sektore Publikoak zenbat zor gehigarri jaulki behar duen adierazten du.

Sarrera eta gastuen **KONTABILIZAZIO UNEA**ren arabera, bi saldo bereiz daitezke:

- **Kutxa-saldoa:**
 - Ekitaldian burututako kutxa-gastu eta kutxa-sarreraren aldeko aldea, sarrera hori lortzeko eskubidea edo gastu hori jasateko beharra noiz sortu zen kontuan hartu gabe.
 - Espainiako Bankuan Altxorraren aurrezki-kutxan aldaketak adierazten ditu, eta beraz sistemaren likideziaren adierazlea da.
- **Kudeaketa-saldoa:**
 - Eragiketen sortzapen-irizpidea jarraituz gastu eta sarreraren arteko aldea, kutxan noiz agertuko diren kontuan hartu gabe.
 - Kontabilitate Nazionalaren terminoetan finantzaketa-ahalmen edo beharrarekin egiten du bat

INFLAZIOGATIKO DOIKETEN arabera:

- Inflazioak, finantza-aktibo eta pasiboen balio errealean eragiten du.
- Inflazioak, nominal terminoetan zorrak dituztenen alde jokatzen du, beren balio erreala murrizten baitu.
- Orokorrean Gobernuak zordunak izaten direnez termino garbietan, inflaziogatiko doiketak burutu beharko dira beren defizit erreala ezagutzeko.

ABAGUNEARI ala EGITURARI lotuak izatearen arabera:

- Ekitaldi bateko defizit/superabita Sektore Publikoaren jokaeraren menpe (egiturari loturikoa) zein abaguneak gastu eta sarrera publikoetan duen efektuaren menpe (abaguneari loturikoa) dago.
- Aurrekontu politikaren norabidea ezagutzeko, egiturari loturikoa axola zaigu.
- Egiturari loturiko defizita estimatzeko aukera ezberdinak ditugu, guztien abiapuntua ekonomiaren ekoizpen maila potentzial eta errealearen arteko aldea izanik (ekoizpen gap-a)

- Aldagai horri sarrera eta gastu publikoen elastikotasun ezberdinak aplikatuz, abaguneari loturiko defizita lortzen da, eta hau defizit globalari kenduz, egiturari loturikoa.
- Prozedura hau aplikatuz:
 - ELGA : “Ziklikoki doitutako defizita”
 - EB: Doitutako aurrekontu saldoa
 - NMF: Egiturari loturiko saldo publikoa

3. GAIA. ESKU-HARTZE PUBLIKOA ERAGINKORTASUNA eta EKITATEA lortzeko.

3.1. Esku-hartze publikoaren zergatia eta tresnak

Gaur egun, Sektore Publikoek esku-hartze ugari burutzen dituzte baliabideen esleipenean eta errentaren birbanaketaren arloan.

Zein da esku-hartze horien zergatia? Zein arlotan eman behar da? Zein baldintzetan?

Galdera hauen erantzuna Merkatu-Akatsen Teoriak ematen digu, Ongizate-Ekonomiaren ikuspuntutik.

ONGIZATE EKONOMIA

Gizarte batek gozatzen duen ongizate-maila azaltzeaz arduratzen da Helburua:

- Max GIZARTE -ONGIZATEA

Bi baldintza:

- Sistema ekonomikoa ERAGINKORRA izan (Pareto)
- Sistema ekonomikoa EKITATIBOA izan (ezin bada, errenta/aberastasuna beresleitzuz Gizarte-Ongizatea handitu)

Merkatuak berak aurreko bi baldintzak beteko balitu, ez legoke esku-hartze publikoaren beharrik. Baino merkatuek emaitza ez-eraginkorak eta ez-ekitatiboak sortu ahal dituzte. Sektore Publikoa emaitza ez-eraginkor eta ez-ekitatibo horiek zuzentzeko gai bada, esku-hartzerako publikorako justifikazio baten aurrean gaude.

ESKU-HARTZE PUBLIKORAKO TRESNAK

OINARRIZKO ARAUDIA: Honen bidez, merkatu ekonomien oinarriak finkatzen dira, hiritarrak eta beren jabetzak babesteko, jabetzaeskubideak definitzeko, kontratuen betearazpena bermatzeko ..., araudiaren bidez

ERREGULAZIOA: Ondasun eta zerbitzuen kalitatea, ke-jaulkipenak, kontsumo kaltegarrien salmentak, derrigorrezko aseguruak ...

FINANTZAKETA (zergak eta subentzioak): -Jarduera publikoarena edo -Jarduera pribatu batzuen

ERRENTA TRANSFERENTZIAK: Birbanaketa politika garatzeko (pobreziaren aurkako programak ...)

EKOIZPEN PUBLIKOA (*Hurrengo gardenkian) -Merkatalgarriak ez diren ekoizpenak (defentsa ...) -Merkatalgarriak direnak (hezkuntza, sanitatea, posta-zerbitzuak ...)

-Finantza-zerbitzuak (finantza-erakunde publikoak) -Aseguru-zerbitzuak (langabezia, erretiroa ...)

ONDASUN ETA ZERBITZUEN EKOIZPENEAN burututako ESKU-HARTZE PUBLIKOA bi motakoa izan daiteke:


- Modu zuzen batean, EKOIZPEN PUBLIKOAREN bidez
- EKOIZPEN PRIBATUAREN bidez, baino ERREGULAZIO edota FINANTZAKETA PUBLIKOA erabiliz

Bi esku-hartze mota horiek izendatzeko HORNIDURA PUBLIKOA terminoa erabiltzen da

3.2. Esku-hartze publikoa eraginkortasuna lortzeko

3.2.1. MERKATU KONKURRENTZIALAK ERAGINKORRAK AL DIRA?


Galdera hau erantzun aurretik, eraginkortasunarako baldintzak zein diren gogoratu dugu. Horretarako (2x2x2) ekonomia batean gaudela suposatuko dugu, hau da, bi produkzio-faktore (L,K) , bi kontsumo-ondasun (X,Y) eta bi kontsumitzaile (A,B) dituen ekonomia bat:



1) KONTSUMOAN ERAGINKORTASUNERAKO BALDINTZA (X , Y) →(A, B)

DEF: “(X_A , X_B , Y_A , Y_B) esleipena kontsumoan eraginkorra da, ezin bada, kontsumo ondasunak bi kontsumitzaileen artean berresleitzuz, kontsumitzaileen baten baliagarritasun-maila handitu bestearren murriztu gabe”

GRAFIKOKI: Edgeworth-en kaxaren laguntzaz:



Beraz, esleipena eraginkorra izateko baldintza indiferentzi-kurbek malda berdina OEM_{X,Y}A = OEM_{X,Y}B

ANALITIKOKI:


$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Max } U_A(X_A, Y_A) \\ \text{k.h. } U_B(X_B, Y_B) \equiv \bar{U}_B \\ X_A + X_B = \bar{X} \\ Y_A + Y_B = \bar{Y} \end{array} \right.$$

ADIBIDEA:

Demagun $\underbrace{OEM_{X,Y}^A = 2}_{<} < 3 = \underbrace{OEM_{X,Y}^B}_{=}$



Beraz, **X gehiegi** (Y gutxiegi) dago **A-ren eskuetan**. Zergatik?



ONDORIOZ:

$OEM_{X,Y}^A < OEM_{X,Y}^B \Rightarrow$ Esleipen ez-eraginkorra (Ak X gehiegi eta Y gutxiegi)


$OEM_{X,Y}^A > OEM_{X,Y}^B \Rightarrow$ Esleipen ez-eraginkorra (Ak X gutxiegi eta Y gehiegi)

$OEM_{X,Y}^A = OEM_{X,Y}^B \Rightarrow$ Esleipen eraginkorra

2) EKOIZPENEAN ERAGINKORTASUNERAKO BALDINTZA (L , K) \rightarrow (X, Y)

DEF: "(LX , LY , KX , KY) esleipena ekoizpenean eraginkorra da, ezin bada, produkzio-faktoreak bi industrien artean berresleituz, industriaren baten ekoizpen-maila handitu bestearena murriztu gabe"

GRAFIKOKI: Edgeworth-en kaxaren laguntzaz:




Beraz, esleipena eraginkorra izateko baldintza isokuantek malda berdina
 $OETML,K X = OETML,K Y$


ANALITIKOKI:

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Max } X(L_X, K_X) \\ \text{k.h. } Y(L_Y, K_Y) = \bar{Y} \\ L_X + L_Y = \bar{L} \\ K_X + K_Y = \bar{K} \end{array} \right.$$

ADIBIDEA:



Beraz, L gehiegi (K gutxiegi) dago X industrian. Zergatik?




ONDORIOZ:

$OETM_{L,k}^X < OETM_{L,k}^Y \Rightarrow$ Esleipen ez-eraginkorra (Xek L gehiegi eta K gutxiegi)

$OETM_{L,k}^X > OETM_{L,k}^Y \Rightarrow$ Esleipen ez-eraginkorra (Xek L gutxiegi eta K gehiegi)

$OETM_{L,k}^X = OETM_{L,k}^Y \Rightarrow$ Esleipen eraginkorra

BESTALDE: Ekoizpenean eraginkorrak diren esleipenetan lortzen diren X eta Y-ren konbinaketa ezberdinek EKOIZPENAREN AUKERA-MUGA osatzen dute:



Ekoizpen Aukera Mugaren **malda**:

$TEM_{x,y} = dY/dX$

Interpretaketa:

“X-ren ekoizpena unitate batean murrizten bada, gehienez ekoiztu daitezkeen Y-ren unitateak”

3) ERAGINKORTASUN GLOBALERAKO BALDINTZA (L , K) →(X, Y)→(A,B)

DEF: “(LX , LY , KX , KY , XA , XB , YA , YB) esleipena globalki eraginkorra da, ezin bada, produkzio-faktoreak bi industrien artean berresleituz, eta hori egitean lortzen diren ekoizpenmaila berriak bi gizabanakoen artean birbanatuz, gizabanakoren baten baliagarritasun-maila handitu besteara murriztu gabe”.

BEHARREZKO BALDINTZAK:

1) KEB: $OEM_{X,Y}^A = OEM_{X,Y}^B$

2) EEB: $OETM_{L,K}^X = OETM_{X,Y}^Y$

Baino ez dira baldintza nahikoak, 3. baldintza bat bete behar da :


$OEM_{X,Y}^{A,B} = TEM_{X,Y}$

(Aurreko bi baldintzak barneratzen ditu)

ANALITIKOKI:


$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Max } U_A(X_A, Y_A) \\ \text{k.h. } U_B(X_B, Y_B) = \bar{U}_B \\ X_A + X_B = X \\ Y_A + Y_B = Y \\ Y = F(X) \text{ (EAM)} \end{array} \right. \Rightarrow \boxed{OEM_{X,Y}^{A,B} = TEM_{X,Y}}$$

ADIBIDEA:



Beraz, **X gehiegi** (Y gutxiegi) dago **ekonomian**. Zergatik?

$\nabla 1X$ ekoizpenean $\Rightarrow \Delta 3Y \Rightarrow$ Baino kontsumitzaileek soilik 2Y behar dituzte baliagarritasuna mantentzeko. 3Y-rekin $U \uparrow$



BESTALDE: Globalki eraginkorrak diren esleipenetan lortzen diren UA eta UB -ren konbinaketa ezberdinek **BALIAGARRITASUNAREN AUKERA-MUGA GLOBALA** osatzen dute:

Merkatu konkurrentzialak eraginkorrak al dira?

Eraginkortasunerako baldintzak aztertu ondoren, merkatu konkurrentzialek baldintza horiek betetzen dituzten ala ez galdetzen gara. •

Erantzuna, Ongizate-Ekonomiaren Lehenengo Oinarrizko Teoremak (OELOT) ematen digu: “Kontsumitzaile eta produktugile guztiak konpetitzaile perfektu gisa badihardute, hau da, prezio guztiak konstante moduan hartuz, baldintza batzuen pean merkatuek baliabideen esleipen eraginkorra lortuko dute inolako laguntzarik behar izan gabe”

FROGAPENA: Demagun (2x2x2) ekonomia batean gaudela, hau da, bi produkzio-faktore (L,K) , bi kontsumo-ondasun (X,Y) eta bi kontsumitzaile (A,B) dituen ekonomia bat. Produktiofaktoreen eta ondasunen merkatuak konkurrentzialak dira, prezioak W, r, PX eta PY izanik hurrenez hurren. Kontsumitzaileen errentak RA eta RB dira, finkoak, eta teknologia FX (LX , KX) eta FY (LY , KY) funtzioetan laburbiltzen da.

a) KONTSUMITZAILEEN PORTAERA MERKATU KONKURRENTZIALETAN:

A kontsumitzailea:

$$\left. \begin{array}{l} \text{MAX} \quad U_A(X_A, Y_A) \\ \text{kh} \quad P_X X_A + P_Y Y_A = R_A \end{array} \right\}$$

$$L = U^A(X_A, Y_A) - \lambda [P_X X_A + P_Y Y_A - R_A]$$

$$\left. \begin{array}{l} dL/dX_A = dU^A(.) / dX_A - \lambda P_X = 0 \Rightarrow \lambda = U^{A'}_X / P_X \\ dL/dY_A = dU^A(.) / dY_A - \lambda P_Y = 0 \Rightarrow \lambda = U^{A'}_Y / P_Y \end{array} \right\} \Rightarrow U^{A'}_X / U^{A'}_Y = P_X / P_Y \Rightarrow \text{OEMA}_{X,Y} = P_X / P_Y$$

B kontsumitzailea:

$$\left. \begin{array}{l} \text{MAX} \quad U_B(X_B, Y_B) \\ \text{Kh} \quad P_X X_B + P_Y Y_B = R_B \end{array} \right\} \Rightarrow U^{B'}_X / U^{B'}_Y = P_X / P_Y \Rightarrow \text{OEMB}_{X,Y} = P_X / P_Y$$

Baino P_X eta P_Y konstanteak direnez $\Rightarrow \text{OEMA}_{X,Y} = \text{OEMB}_{X,Y} \Rightarrow$ KEB betetzen ari da

b) PRODUKTUGILEEN PORTAERA MERKATU KONKURRENTZIALETAN:

X industria:

$$\left. \begin{array}{l} \text{MAX} \quad M_X = P_X X - W L_X - r K_X \\ \text{kh} \quad X = F_X(L_X, K_X) \end{array} \right\}$$

$$M_X = P_X F_X(L_X, K_X) - W L_X - r K_X$$

$$\left. \begin{array}{l} dM_X / dL_X = P_X dF_X(.) / dL_X - W = 0 \quad (1) \Rightarrow P_X = W / F^{X'}_L \\ dM_X / dK_X = P_X dF_X(.) / dK_X - r = 0 \quad (2) \Rightarrow P_X = r / F^{X'}_K \end{array} \right\}$$

$$\Rightarrow F^{X'}_L / F^{X'}_K = W / r \Rightarrow \text{OETM}^X_{L,K} = W / r$$

Y industria:

$$\left. \begin{array}{l} \text{MAX} \quad M_Y = P_Y Y - W L_Y - r K_Y \\ \text{kh} \quad Y = F_Y(L_Y, K_Y) \end{array} \right\}$$

$$M_Y = P_Y F_Y(L_Y, K_Y) - W L_Y - r K_Y$$

$$\left. \begin{array}{l} dM_Y / dL_Y = P_Y dF_Y(.) / dL_Y - W = 0 \quad (3) \Rightarrow P_Y = W / F^{Y'}_L \\ dM_Y / dK_Y = P_Y dF_Y(.) / dK_Y - r = 0 \quad (4) \Rightarrow P_Y = r / F^{Y'}_K \end{array} \right\}$$

$$\Rightarrow F^{Y'}_L / F^{Y'}_K = W / r \Rightarrow \text{OETM}^Y_{L,K} = W / r$$

Baino W eta r konstanteak direnez $\Rightarrow \text{OETM}^X_{L,K} = \text{OETM}^Y_{L,K} \Rightarrow$ EEB betetzen ari da

$$\text{GAINERA} \Rightarrow P_X / P_Y = F_Y^L / F_X^L = F_Y^K / F_X^K = \text{TEM}_{X,Y}$$

(1) eta (3) (2) eta (4)
hartuz hartuz

Beraz, $\text{OEM}^{A,B}_{X,Y} = \text{TEM}_{X,Y}$ betetzen da, hau da, **EGB betetzen da**

Zein dira OELOT-k eskatzen dituen BALDINTZAK?

1. KONKURRENTZI PERFEKTUA: Kontsumitzaile eta produktugile guztiak konkurrentzialki jokatzeko dute, prezioak konstante moduan hartuz, murriztapen bakarrak teknologia eta baliabide-urritasuna izanik
2. KONTSUMOAN LEHIAKIDETASUN OSOA dago, BAZTERKETAREN IRIZPIDEA aplikatu daiteke eta EZ DAGO KANPO ERAGINIK, hau da, elkarrekintza ekonomiko guztiak merkatuan burutzen dira eta prezioetan islatzen dira.
3. INFORMAZIOA PERFEKTUA da
4. MERKATUAK OSOAK dira

Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, merkatu ekonomia batek baliabideen esleipen eraginkorra lortuko du. Kasu honetan, Sektore Publikoaren papera, jabetza-eskubideak ezarri eta babesten dituen egitura legal basiko bat eskaintzea izango zen. Sektore Publiko minimo bat, gizabanakoa eta bere jabetzak babesten dituena, eta baliabideen esleipena merkatuaren eskuetan ustentzen dituena.

Baldintza hauetako bat betetzen ez bada berriz, MERKATU-AKATS baten aurrean gaudela esaten da. Kasu honetan merkatuak ez dira gai izango baliabideen esleipen eraginkor bat lortzeko.

Honek, eraginkortasunaren ikuspuntutik esku-hartze publikorako aukera irekitzen du, askotan esku-hartze publiko aproposak burutzeko gizarteak eraginkortasun-irabaziak lortu ahal dituelako.

Ondoren, esku-hartze publikoa justifikatu dezaketzen (modu baldintzatu batean beti) merkatu-akats batzuk aztertuko ditugu:

- KONKURRENTZI EZ PERFEKTUA
- MONOPOLIO NATURALA
- ONDASUN PUBLIKOAK
- KANPO ERAGINAK
- BESTE MERKATU-AKATSA BATZUK

3.2.2. MERKATU-AKATSAK

3.2.2.1. KONKURRENTZI EZ PERFEKTU

Konkurrentzi perfektuan, kontsumitzaile eta produktugile guztiak prezioonartzaileak dira. Honek, merkatuetan inolako hesirik gabe parte hartzen duten kontsumitzaile eta produktugile kopuru handia eskatzen du. Baina baldintza hau arrazoi ezberdinengatik apur daiteke, monopolio, oligopolio, monoposnio eta antzeko konkurrentzialak ez diren egoerak sortuz.


Gu MONOPOLIOAn zentratuko gara.

Monopolio egoera bat bi arrazoiengatik azal daiteke:

- KAUSA TEKNOLOGIKOAK → MONOPOLIO NATURALA
- KAUSA ez TEKNOLOGIKOAK: Merkatuan sartzeko hesi artifiziala (Adib, jarduera burutzeko lizentzia bakarra, esate baterako, hiri-garraioa kontzesio erregimenean) → MONOPOLIO ARTIFIZIALA

Monopolio artifizialarekin hasiko gara, eta 3.2.2.2. atalean Monopolio Naturala aztertuko dugu.

Demagun X ondasuna artifizialki sortutako monopolio baten bidez ekoizten dela. Analisia errazteko, batez besteko kostuak ($K^*(X)$) eta kostu marjinalak ($KMj(X)$) konstanteak eta beraz berdinak dira. $P(X)$ funtzioak eskaria adierazten du eta $SMj(X)$ sarrera marjinalak.



Monopolistak aukeratu duen esleipena:

$$\text{MAX Mozkinak} \Rightarrow \text{SMj}(X) = \text{KMj}(X) \Rightarrow X_M$$


$$\Rightarrow P_M = P(X=X_M)$$

Baino (X_M, P_M) esleipena ez da eraginkorra, bertan $OEM_{X,Y} > TEM_{X,Y}$ baita.

Ikus dezagun:


$OEM_{X,Y}$ ⇒ Xren unitate bakoitza Y-ren zenbat unitatez ordezkatu lukeen kontsumitzaileak ⇒ $P_Y = 1$ eginez ⇒ X-ren unitate bakoitza zenbat moneta-unitatez ordezkatu lukeen kontsumitzaileak ⇒ **$P(X)$**

$TEM_{X,Y}$ ⇒ Xren unitate bakoitza Y-ren zenbat unitatez ordezkatu daitekeen ekoizpenean ⇒ $P_Y = 1$ eginez ⇒ X-ren unitate bakoitza zenbat moneta-unitatez ordezkatu daitekeen ekoizpenean ⇒ **$KMj(X)$**




Esleipen eraginkorra: $OEM_{X,Y} = TEM_{X,Y}$, hau da, $P(X) = KMj(X) \Rightarrow X_e$
 $\Rightarrow P_e = P(X=X_e)$

Izan ere, X_M -tik abiatuz ekoizpena unitate batean handitzen badugu, kontsumitzaileek $P(X)$ moneta-unitateko balorazioa emango diote, bere ekoizpenkostu marjinala txikiagoa izanik. Beraz gizarteak irabazi garbi bat izango du, $P(X) - KMj(X)$, alegia. Arrazoiketa hau X_e -ra iritsi arte errepika dezakegu. Horrela, ekoizpena X_M -tik X_e -ra handitzen bada, ABC triangeluaren azalerako GIZARTEIRABAZI GARBIA sortuko dela esan dezakegu.



Beste modu batera: Inplikaturik dauden agenteen irabazi/galerak aztertuz

(X_M, P_M) -tik (X_e, P_e) -ra $\left\{ \begin{array}{l} \text{Konts: } \Delta KS = P_M A C P_e \text{ azalera} \\ \text{Monop: } \nabla MM = P_M A B P_e \text{ azalera} \end{array} \right\} \Rightarrow \text{GIG} = \text{ABC} \text{ azalera}$



Monopolioak eragindako ez-eraginkortasuna eliminatzeko ESKU-HARTZE PUBLIKOAK:


- ERREGULAZIOA: Produktugilea X_e ekoiztera behartu. Modu berean, prezioa erregula daiteke, P_e prezio maximoa ezarriz.
- EKOIZPEN PUBLIKOA: Jarduera enpresa publiko batek garatzea, beti ere sektore pribatuak beste ahalmen teknikoa eta kudeaketa-ahalmena duela suposatuz
- FINANTZAKETA: Sektore Publikoak monopolistari subsidio bat eskeini diezaiolke, ekoizpen-maila eraginkorra hautatzeko pizgarria izan dezan. Bi aukera:
 - 1) PMABPe unitateko subsidioa eskeini, (X_e, P_e) egitearen trukean (+erreg)
 - 2) Ekoiztutako unitate bakoitzeko $(KM_j(X_e) - SM_j(X_e))$ unitateko subsidioa eskaini. Kasu honetan, monopolistaren mozkinak maximotzen dituen esleipena (X_e, P_e) izatera pasatuko da. Beraz, ez du erregulaziorik behar izango, baina aurrekoak baino aurrekontu-kostu handiagoa suposatuko du.

•1) $P_M AB P_e$ unitateko subsidioa

•2) Ekoiztutako unitate bakoitzeko $(KM_j(X_e) - SM_j(X_e))$ unitateko subsidioa: **CD**

$$\Rightarrow SM_j'(X) = SM_j(X) + CD \Rightarrow \text{MAX Mozk} \Rightarrow SM_j'(X) = KM_j(X) \stackrel{C}{\Rightarrow} X_M' = X_e$$

$$\Rightarrow \text{Aurrekontu-kostua} = CD * X_e$$



Ordea, eta FINANTZAKETArekin jarraituz, subsidio horiek biltzeko Sektore Publikoak zergak ezarri beharko dituela azpimarratzea oso garrantzitsua da, eta zerga horiek eraginkortasun-kostuak eragin ditzaketela ezartzen diren merkatuetan:

ZERGAK:

- Neutralak (ez-distortsionatzaileak) BILKETA = ZBK (1)
- Ez-neutralak (distortsionatzaileak) BILKETA < ZBK (2)

$$GIG_{SUBS} = GIG_{SUBS\ GABE} + [\text{Subsidioaren zenbatekoa}^{(3)} - ZBK]$$

Beraz:

•Zerga neutralak $\Rightarrow [...] = 0 \Rightarrow GIG_{SUBS} = GIG_{SUBS\ GABE}$

•Zerga ez-neutralak $\Rightarrow [...] < 0 \Rightarrow GIG_{SUBS}^{(4)} < GIG_{SUBS\ GABE}$

(1) Zerga biltzearen kostua, zergadunek jasaten duten baliagarritasun-galeraren terminoetan

(2) Zergaren gehiegizko-zama = ZBK-Bilketa

(3) Monopolistarentzat irabazia, eta zerga-bilketari berdina

(4) $GIG_{SUBS} < 0$ bada ez du pena merezi izango merkatu-akatsa modu horretara zuzentzeak

3.2.2.2. MONOPOLIO NATURALA

Monopolio natural baten aurrean gaudela esaten da, jarduera batek batez besteko kostu beherakorrak dituenean edozein ekoizpen-mailarako.

Egoera hau, kostu finko oso handiak daudenean (horietako asko berreskuraezinak) sortzen da : Ur-hornikuntza, trenbideak ... •

Merkatuan sartzeko hesi teknologiko horien ondorioz, gizartearentzat merkeagoa da eskari gutzia produktugile bakar batek asetzea. Gainera, orokorrean, behin produktugile bat dugula, besteek ez dute pizgarririk izango merkatuan sartzeko.

Baino produktugile horri ez bazaizkio murriztapenak ezartzen, bere helburua mozkinak maximotzea izango da eta beraz jarduera ezeraginkorki ustiatuko du (gutxiegi eta garestiegi salduz).

Ikus dezagun grafikoki:

Monopolistak aukeratu duen esleipena:


$$\text{MAX Mozkinak} \Rightarrow \text{SMj}(X) = \text{KMj}(X) \Rightarrow X_M$$

$$\Rightarrow P_M = P(X=X_M)$$


Baino (X_M, P_M) esleipena ez da eraginkorra, bertan $P(X) > \text{KMj}(X)$ baita. ($\text{OEM}_{X,Y} > \text{TEM}_{X,Y}$)


Esleipen eraginkorra: $P(X) = \text{KMj}(X) \Rightarrow X_e$

$$\Rightarrow P_e = P(X=X_e)$$



(X_M, P_M) -tik (X_e, P_e) -ra mugitzearen **GIZARTE IRABAZI GARBIA** (edo (X_M, P_M) -n egotearen ez-eraginkortasunaren kostua) = ABC azalera






Monopolioak eragindako ez-eraginkortasuna eliminatzeko ESKU-HARTZE PUBLIKOAK:

- EKOIZPEN PUBLIKOA + FINANTZAKETA: Jarduera enpresa publiko batek garatzea, eta sortzen diren galerak zergen bidez finantzatu. Kasu honetan ezin dugu ahaztu zergek ez-eraginkortasun kostuak ere sor ditzaketela
- ERREGULAZIOA + FINANTZAKETA: Jarduera esku pribatuetan utzi, eta X_e maila P_e prezioan saltzearen ondoriozko galerak zergen bidez finantzatu. Lehen bezala, ezin dugu ahaztu zergek ez-eraginkortasun kostuak ere sor ditzaketela
- PREZIOEN ERREGULAZIOA: X_e maila galerarik gabe ekoiztea lortuko luketen prezioak ezartzeko mekanismo alternatiboak erregulatu:
 - 1) Bi zatitako tarifa: Kuota finko bat ondasun hori kontsumitzeko aukera izateko (kostu finkoak estaltzeko helburuarekin) gehi kontsumitutako unitateak beren kostu marjinalan (hau da, P_e -n, kostu marjinala konstantea bada). Kostu marjinala beherakorra bada, aukera X_e P_e mailan eskaintzea da eta sortutako galerak kontsumitzaileen artean banatzea.
 - 2) Burututako kontsumoaren arabera prezio bereizketa: Unitate ezberdinak prezio ezberdinetan saldu, azken unitateak P_e prezioan saltzen direlarik
 - 3) Prezioa batez besteko kostuen arabera ezarri: hurrengo gardenkia

Azken aukera: $P(X) = K^*(X)$ egitera behartu, $P(X) = KMj(X)$ egin beharrean.

Horrela ez da ez-eraginkortasun guztiz zuzentzen, baina galerak saihesten dira



3.2.2.3. ONDASUN PUBLIKOAK

- Ondasun publikoak, kontsumoan lehiakidetasunik gabeko ondasunak dira. Hau da, behin G kantitate bat hornitu ondoren, gizabanako guztiek aldi bereran kontsumi dezakete kantitate hau.
- Beste modu batera esanda, ondasuna hornituz gero, ondasun horren kontsumoan gizabanako gehigarri bat sartzearen kostua zero da, gainerako gizabanakoentzat dagoen kantitate erabilgarriaren terminoetan.

Adibidez, defentsa nazionala, irrati eta telebista saioak, pilotuta ez dagoen errepidea, nazioarteko hitzarmenak Baina kontuz, aurrekoak ez du esan nahi ondasunaren unitate gehigarri bat ekoiztearen kostua zero denik. Adibidez, errepide baten kilometro gehigarriak ekoizteak kostu bat suposatzen du, baina behin ekoiztu ondoren, pilotuta ez dagoen bitartean, errepide horretan kotxe gehigarri batek zirkulatzearen gizartekostu gehigarria zero da.

Kontsumoan lehiakidetasuna egotea ala ez egotea da ondasun publikoak eta pribatuak bereizten dituen.

- Ondasun bat pribatua bada, ondasunaren unitate bakoitza soilik gizabanako batek erabil dezake. Adibidez, A-k kontsumitzen duen sagarra ezin du aldi berean B-k kontsumitu.
- Aldiz, publikoa bada, gizabanako guztiek aldi berean unitate berbera kontsumi dezakete. Adibidez, telebista saio bat A-k eta B-k kontsumi dezakete batera.

Dena den, lehiakidetasunik eza hertsia muturreko kasu bat da. Ondasun askotan, lehiakidetasun partziala agertzen da. Hau da, kontsumitzaile kopuru batetik gora, kontsumitzaile gehigarriek kostu bat sortzen hasten dira gainerakoetan (errepide bat pilotatzean, adibidez)

Lehiakidetasunik eza	⇒ Ondasun publiko garbiak
Lehiakidetasun partziala	⇒ Ondasun publiko ez garbiak
Lehiakidetasun osoa	⇒ Ondasun pribatuak

ONDASUN PUBLIKOAK (Garbiak eta ez garbiak)

Ondasun bat baztergarria ala ez baztergarria izatea barne ezaugarri bat baino gehiago ezaugarri tekniko bat da, denborarekin alda daitekeena. Adibidez: telebista-saioak (iraganean ez-baztergarriak, gaur egun baztergarriak)

- EZ BAZTERGARRIAK:
 - Ezinezkoa da (kostu onargarri batean behintzat) ondasunaren truke prezio bat ordaintzen ez duen kontsumitzailea kontsumo horretatik baztertu (defentsa nazionala, kaleargiak..)
 - Orokorrean(*) hornidura pribatua nulua izango da, kontsumitzaile guztiek dohainezko erabiltzaileak izateko pizgarria izango baitute (*)Salbuespenak egon ahal dira: zeharkako mekanismoak ezarri prezio moduan –Iragarkiak,


adibidez-, altruistak diren eskaintzaileak, lehentasun oso indartsuko eskaintzaileak...)

● **BAZTERGARRIAK:**

- Posible da ondasunaren truke prezio bat ordaintzen ez duen kontsumitzailea kontsumo horretatik baztertzea (errepideak, telebista saioak ...)
- Orokorrean hornidura pribatua posiblea izango da, baino honek ez du ziurtatzen eraginkorra izango denik.
- Ziurrenik, azpiekoizpen eta azpikontsumo bat egongo da. Kontsumoan lehiarik ez dagoen bitartean, eraginkortasunak bazterketarik ez aplikatzea eskatzen baitu

ONDASUN PUBLIKOEN HORNIDURA ERAGINKORRERAKO BALDINTZA

Horretarako (2x2x2) ekonomia batean gaudela suposatuko dugu, hau da, bi produkzio-faktore (L,K) , bi kontsumo-ondasun (G,Y) eta bi kontsumitzaile (A,B) dituen ekonomia bat:



ANALITIKOKI:

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Max } U_A(G, Y_A) \\ \text{k.h. } U_B(G, Y_B) = \bar{U}_B \\ Y_A + Y_B = Y \\ G = F(X) \text{ (EAM)} \end{array} \right\} \rightarrow \text{SAMUELSONen BALDINTZA}$$

$$\text{OEM}^A_{G,Y} + \text{OEM}^B_{G,Y} = \text{TEM}_{G,Y}$$

INTERPRETAKETA:
 $P_Y = 1$ eginez

Hornitutako G-ren azken unitateari gizabanako guztien artean ematen dioten balorazioa:
GIZARTE MOZKIN MARJINALA
 $= \sum MMj'(G)$


Hornitutako azken unitatea ekoiztearen kostua:
ekoizpen-kostu MARJINALA
 $= KMj(G)$

GOGORATU: $P_Y = 1$ eginez


$\text{OEM}^A_{G,Y}$ = Kontsumitutako G-ren unitate bakoitzari A-k ematen dion balorazioa, moneta terminuetan = G-ren unitate gehigarri bat kontsumitzearen truke A-k zenbat moneta-unitate ordainduko lituzkeen = $P^A(G)$
 $\text{OEM}^B_{G,Y}$ = Kontsumitutako G-ren unitate bakoitzari B-k ematen dion balorazioa, moneta terminuetan = G-ren unitate gehigarri bat kontsumitzearen truke A-k zenbat moneta-unitate ordainduko lituzkern = $P^B(G)$
 $\text{TEM}_{G,Y}$ = G-ren unitate gehigarri bat lortzeko zenbat moneta unitate behar diren = G-ren ekoizpen-kostu marjinala

ANALISI GRAFIKOA:

Demagun $OEM^A_{G,Y}$ (edo $P^A(G)$), $OEM^B_{G,Y}$ (edo $P^B(G)$) eta $TEM_{G,Y}$ (edo $KMj(G)$) ezagunak direla:




Beraz, hornidura maila eraginkorra G^* izango da, bertan betetzen baita Samuelson-en baldintza



G^* mailaren ezaugarriak:


- Bi gizabanakoek kantitate berbera kontsumitzen dute, G^*
- Baina bakoitzak balorazio marjinal ezberdin bat ematen dio kantitate horri : $OEMA(G^*)$ eta $OEMB(G^*)$ alegia
- Non balorazio marjinal horien baturak, $OEMA(G^*)+OEMB(G^*)$, G^* mailaren ekoizpen-kostu marjinalarekin egiten du bat ($TEM(G^*)$)



ONDASUN PRIBATUEN kasuan berriz, eskari agregatua banakako eskariak horizontalki batuz lortzen da, ez baita baterako kontsumoaren ezaugarria ematen

X^* mailaren ezaugarriak:

- Kasu honetan, maila eraginkorra X^* da, non $OEMA(X^*)=OEMB(X^*) = TEM(X^*)$
- Gizabanako bakoitzak kantitate ezberdina kontsumitzen du, X^*_A eta X^*_B , bien batura X^* izanik $X^*_A + X^*_B$
- Baina beren balorazio marjinala berdina da, $OEMA(X^*)=OEMB(X^*)$
- Eta X^* ekoiztearen kostu marjinalarekin egiten du bat ($TEM(X^*)$)



ONDASUN PUBLIKOETARA itzuliz, eta bere hornidura maila eraginkorrek gizabanako guztien balorazio marjinala kontutan hartzea eskatzen duela jakin ondoren, gai gara esku pribatuetan lagatzen direnean (hornidura pribatua) orokorrean emango den **azpi-ekoizpena ulertzeko**:

- Azpi ekoizpena egongo litzateke, ekoiztu beharreko maila zehazterako orduan soilik ezarritako prezioa oso osorik ordaintzera prest daudenen balorazioak hartuko liratekeelako kontutan
- Adibidez, parke batean sartzeko ordaintzeko prest daudenen beharrak asetzeko parkearen tamaina ,txikiagoa da, dohain izango balitz egongo litzatekeen eskaria asetzeko beharko genukeena baino.
- Ondasun publikoak eraginkorki hornitzeko merkatu pribatuen ezgaitasunak merkatu-akats bat sortzen du. Sektore Publikoa gai al da egoera ez-eraginkor hau hobetzeko?
- Bai, gizabanakoen lehentasunak ezagutuko balitu, hau da, informazio perfektua balu NOLA?

$T^A = OEM^A (G^*)$
 $T^B = OEM^B (G^*)$ } **PREZIO PERTSONALIZATUAK edo LINDAHL PREZIOAK**

Gizabanako bakoitzari G^* mailan lortzen duen balorazio marjinalari berdina den prezio (zerga) bat ezarriz G ondasuna kontsumitzearen truke:

Prezio hauetan, gizabanakoek nahi duten beste kontsumitu balezakete, A -k G^* unitate eskatuko litzuzke, eta baita B -K ere. Hau da, kantitate-maila eraginkorra eskatuko lukete biek. Mekanismo honekin ekoizpena kontsumitzaile guztien artean finantzatuko litzateke, gastu publiko horrek bakoitzari suposatu dion mozkinaren arabera.

Prezio Pertsonalizatuen mekanismoaren ARAZOA:

- Gizabanakoen balorazioak ikusezinak direla, eta gizabanakoek ez dituztela aitortzeko pizgarriak izango, beren ordainketa beren aitormenaren menpe egongo baita. Orokorrean, gizabanakoek beren mozkinak azpi-baloratzeko pizgarria izango dute eta dohainezko erabiltzaileak izaten saiatuko dira. Muturrean, ondasuna ez litzateke hornituko.
- Egoera horren aurrean, Sektore Publikoak ordainketa eta banakako mozkinak ez lotzea erabaki lezake: hau da, G^* maila eraginkorra planifika lezake baino bere kostua Estatuaren sarrera orokorrekin finantzatu
- Baina horrela jokatzeko ere gizabanakoen lehentasunak ezagutu beharko litzuzke, G^* maila zein den ezagutzeko. Eta orain ere, ziurrenik, gizabanakoek gezurra esateko pizgarria izango lukete, beren lehentasunak gain-baloratzuz. Gainera, nahiz eta G^* maila ezagutu, ezin ditugu ahaztu zergek orokorrean sortzen dituzten eraginkortasun-kostuak.

ARAZO hauen aurrean, Sektore Publikoak beste mekanismo batzuk erabili beharko ditu, bozketa sistemak, adibidez. Baina mekanismo hauek ere ziurrenik ez dute esleipen eraginkor bat eragingo. BERAZ oso zaila da esku-hartze publikoak eraginkortasuna lortzea ondasun publikoen arloan ONDORIOZ ez-perfektuak diren aukeren artean hautatu beharko da: Merkatuaren esleipen ez-eraginkorrek ala ziurrenik ez-eraginkorrek izango diren Sektore Publikoaren esleipenak •Ezin dugu ziurtatu orokorrean esku-hartze publikoa beti hornidura pribatua baino hobea izango denik

3.2.2.4. KANPO ERAGINAK.

Kanpo eragin bat, agente ekonomiko baten portaerak beste agente ekonomiko baten ongizatean eragiten duen aldaketa da. Bi motatakoak:

- PEKUNIARIOAK:
 - Merkatu-prezioetan aldaketen bidez transmititzen direnak
 - Eskari eta eskaintza-kurbetan aldaketei erantzuten dieten prezio aldaketak
 - Ez gaude merkatu-akats baten aurrean. Merkatuen eraginkortasuna berreskuratzen laguntzen digute
- TEKNOLOGIKOAK:
 - Merkatuz kanpoko bidetik, modu zuzen batean, transmititzen direnak
 - Ondasun baten ekoizpen edota kontsumoak beste agente batzuen ongizatean eragiten duenean, eragin hori prezioetan islatu gabe (zarata, kutsadura...) MERKATU-AKATSA


MERKATU AKATSAK:

- POSITIBOAK eta NEGATIBOAK:
 - Positiboak: garraio publikoaren erabilera, txertoak, hezkuntza...
 - Negatiboak: zarata, kutsadura...
- AGENTE EZBERDINEN ARTEKOA:
 - Kontsumitzaileen artekoa: erretzaile/erretzaile pasiboa...
 - Kontsumitzaile eta produktugileen artekoa: airera kutsadura jaulkitzen duen enpresa...
 - Produktugileen artekoa: Itsasora isuskrinak botatzen dituen enpresa eta arrantzaleak...
 - Sektore Publikoen artekoa: Kapitaleren gaineko zergaren tasa murrizten duen herrialdea eta inguruko herrialdeetako kapital ihesak
- LEHIAKIDETASUN GABEKO KONTSUMOAK, orokorrean,
 - Beraz, ondasun publikoen ezaugarria betetzen dute
 - Baina ezberdintasun garrantzitsu bat dute ondasun publikoekin, azken hauek jardueraren helburu izatea eta kanpo eraginak berriz bilatu ez den jarduera baten ondorio izatea
 - Kanpo eragin pekuniarioekin gertatzen den ez bezala, kanpo eragin teknologikoek eraginkortasu-kostuak sortzen dituzte ekonomian
 - Arrazoia sinplea da: esku-hartze publikorik ezean, kaltea sortzen duenak (kanpo eragin negatiboa) ez du inolako kosturik jasaten kalte horrengatik eta alderantzik, onura sortzen duenak (kanpo eragin positiboa) ez du inolako konpentsaziorik jasotzen eragindako onuragatik.
 - Hau da, merkatu-prezioek ez dituzte jardueraren kostu guztiak edota mozkin guztiak islatzen, ez horren ondorioz, kontsumo edota ekoizpen erabakiak ez-eraginkorki bideratzen dituzte, kanpo eragin negatiboen kasuan gain-ekoizpen eta positiboen kasuan azpi-ekoizpen bat sortzen delarik

KANPO ERAGINEN (TEKNOLOGIKOEN) ANALISI GRAFIKOA

Demagun enpresa batek X ondasuna ekoizten duela. Ekoizpen prozesuan keak jaulkitzen ditu, eta inguruko herri bateko biztanleak kaltetzen ditu.

$Sp(X) = KMjP(X) \Rightarrow$ X ondasunaren eskaintza-funtzioa edo kostu marjinal pribatuen funtzioa.
 $Dp(X) = MMj(X) \Rightarrow$ X ondasunaren eskari-kurba edo kontsumitzaileen mozkin marjinalen funtzioa
 Kalte Mj (X) \Rightarrow X ondasunaren unitate bakoitzak hiritarrengan sortzen duen kalte marjinalaren funtzioa



Oreka konkurrentziala: $MMj(X) = KMjP(X) \Rightarrow (X_K, P_K)$


$KS+PS=0CE_K$
 $KALTEA_H=0X_KD$

Baino esleipen hori **ez da eraginkorra**, ez direlako jardueraren kostu guztiak kontutan hartu.

Izan ere $\nabla X_K=1$ eginez

- (K+P)-en "galera" = $\nabla(KS+PS) = MMj(X) - KMjP(X)$
- (H-en "irabazia" = $\nabla KALTEAN = KalteMj(X)$

Beraz, $Kalte Mj(X) > (MMj(X) - KMjP(X))$ denez, ekoizpena murriztean gizarteak irabazi garbi bat izango du.




BERAZ:

$$\text{Esleipen eraginkorra} \Rightarrow MMj(X) = KMj(X) + \text{KalteMj}(X) \Rightarrow MMj(X) = \text{Gizarte Kostu Mj}(X) \Rightarrow (X_e, P_e)$$




$$GIG_{E_k-E_e} = \text{Hirit. "irabazia"} - \text{Konts eta prod "galera"} = \nabla \text{KALTEAN} - \nabla (KS+PS)$$



ONDORIOZ,
eraginkortasunak ez du eskatzen kaltea guztiz desagertzea

KANPO ERAGINA POSITIBOA BALITZ $\Rightarrow X_e > X_k$

$$GIG_{E_k-E_e} = \text{Kanpo "irabazia"} - \text{Merkatuan "galera"} = A E_e B E_k - E_e E_k B = A E_e E_k$$




Kanpo eragina zuzentzea edo barruratzea, prezioek jardueraren kostu edota mozkin guztiak (kanpokoak zein barnekoak edo pribatuak) islatu ditzaten lortzea da, kanpo eragina sortzen ari den jarduera bere maila eraginkorren koka dadin.


Kanpo eraginaren barruraketa, ESKU-HARTZE PUBLIKO ezberdinen bidez lor daiteke:

ONARRIZKO ARAUDIA:

- Aurreko analisiak agerian jarri duenez, barruratu gabeko kanpo eragin baten aurrean gaudenean gizarteak irabazirako margena du (Ee A Ek azalera, alegia)
- Beraz, zergatik ez dute inplikaturik dauden alderdiek akordio bat sinatzen, irabazi hori sortu eta elkar banatzeko?
- Negoziaketa posible izan dadin, lehenik eta behin negoziaketa horretan agente bakoitzaren posizioa zehaztu beharra dago **JABETZA ESKUBIDEAK MUGATUZ** lortzen da negoziaketaren abiapuntua zehaztea (gure adibidean, aire “garbiaren” jabetza esleituz)
- Hau da, nork du konpentsazio bat eskatzeko eskubidea, hartzaileak jasaten duen kalteagatik ala jaulkitzaileak ekoizpena murrizteak suposatzen dion galeragatik?
- **JABETZA ESKUBIDEAK MUGATUZ** lortzen da negoziaketaren abiapuntua zehaztea (gure adibidean, aire “garbiaren” jabetza esleituz)
- COASE (1960) izan zen kanpo eraginaren barruraketan jabetza eskubideen mugaketaren garrantzia azpimarratu zuen lehen ekonomialaria.
 - **COASE-ren Teorema:** Sektore Publikoak jabetza-eskubideak mugatzen baditu, baldintza batzuen pean (informazio perfektua eta negoziaketak kostu handirik ez izatea) negoziaketaren indarrek esleipen eraginkorra bideratuko dute, jabetza-eskubidea nori esleitzen zaion kontuan hartu gabe eta esku-hartze publiko gehigarrien beharrik izan gabe
- Gure adibidera itzuliz, aire garbiaren jabetza-eskubidea mugatzeko bi aukera izango genituzke:
 - **1 AUKERA: Aire garbiaren jabetza jaulkitzaileari esleitu: Enpresak kutsadura jaulkitzeko “baimena” izatea**




Ezin izango duguna ezagutu da sinatuko duten konpentsazio zehatzaren zenbatekoa. Hori, bakoitzak duen negoziaketa-ahalmen erlatiboaren menpe egongo da. Baina edozein dela ere, azken ekoizpen-maila X_e izango da.




- **2 AUKERA:** Aire garbiaren jabetza hartzaileari esleitu: Hiritarrek aire “garbia” arnasteko eskubidea izatea

2 AUKERA: Aire garbiaren jabetza hartzaileari esleitzen bazaio, **negoziaketarik ez** merkatua $X=0$ puntuan kokatuko da.

➔ Posible al da bi alderdiak akordio batera iristea non, akordioaren emaitza $X=0$ baino handiagoa den ekoizpen-maila bat den?



Berriro ere, ezin izango duguna ezagutu da sinatuko duten konpentsazio zehatzaren zenbatekoa. Hori, bakoitzak duen negoziaketa ahalmen eraliboaeren menpe egongo da. Baina **edozein dela ere**, azken ekoizpen-maila X_e izango da.



Ondorioz, **Coase-ren Teorema** esaten duena betetzen da:

- **Sektore Publikoak jabetza-eskubideak mugatzen baditu**, emaitza eraginkorra lortuko dugu jabetza-eskubideak nori esleitzen zaizkion kontuan hartu gabe.
- Beraz, jabetza-eskubideak mugatu ondoren, ez da kanpo eraginei aurre egiteko esku-hartze publiko gehigarriaren beharrik egongo. Sektore Publikoaren eskuhartze minimoa defendatzen dutenek mekanismo hau proposatzen dute.
- Baina, bi baldintza bete behar dira teorema hau aplikagarria izateko:
 - **1) Informazio perfektua:** kanpo eraginaren sorrera ondo mugatua, kaltetun guztiak eta bakoitzak jasaten duen kaltea ezagutu ... Zenbat eta agente gutxiago inplikaturik orduan eta errazagoa betetzeko
 - **2) Negoziaketak kostu baxuak** Zenbat eta agente gutxiago inplikaturik orduan eta errazagoa betetzeko
- Beraz, kanpo eraginaren arazoak zenbat eta agente kopuru handiagori eragin, orduan eta zailagoa izango da Coase-ek proposatzen duen negoziaketaren bidezko soluzio pribatua.
- Esku-hartze publikorik gabeko negoziaketa pribatua nahiko hedatuta egon omen da Valentziako Erkidegoan, erlezain eta zitriko-ustiatzaileen artean


FINANTZAKETA (ZERGAk eta SUBSIDIOAK)

• Kanpo eragina barruratzeko beste aukera bat, kalteak sortzen dituen jardueraren zergatzea izan daiteke, hau da, **zerga pigouar** bat ezarri.

• **Zerga pigouarrek ekoizpen-unitate bakoitza zergatzen dute**, zergaren zenbateko optimoa ekoizpen-maila eraginkorrean eragiten den kalte marginala izanik, hau da:

$T_p = \text{KalteMj}(X_e)$

Bilketa globala = $T_p \cdot X_e$



Horrela, $KMjP'(X) = KMjP(X) + T_p$

$Xk' = X_e$

Oharra: Emaitza berdina lortuko genuke enpresari **kutsadura murrizteko subentzioak** ematen bazaizkio (X murrizten badu edo jaulkipenak murrizteko teknika berriak aplikatzen baditu) Arazoak: zergak biltzearen kostua eta ekitate

ABANTAILAK:

- Kaltea sortzen duenak “zigorra” jasaten du (geroz eta gehiago onartzen da)
- Sektore publikoak bilketa garrantzitsua lor dezake, eraginkortasun-kosturik gabeko zerga bat erabiliz

MUGAPENAK:

- Zerga zenbateko optimoa ezagutzeko informazio perfektua behar da
- Zerga zenbateko optimoa ezberdina izan beharko da enpresa ezberdinentzat
- Zeharkako soluzioa da, hau da, nahiz eta espero izatekoa da zerga optimoaren eraginez enpresa Xe-n kokatzea, ez dago horren inolako bermerik (maximoketaarazoak, mozkinak maximotzeari ezberdinak diren helburuak ...)

OHARRA: Logikaz, kanpo eragin positiboen kasuan, zergen ordeztutako subentzioak erabili beharko genituzke. Horrela, askotan, hezkuntza edota garraio publikoaren erabilera subentzionatzen da.

ERREGULAZIOA

Arau legalen bidez kanpo eraginaren barruraketa behartzean datza. •Gehien erabiltzen den esku-hartzea da.

MUGAPENAK:

- Informazio perfektua behar da ere, optimoa izateko. Askotan, informazio arazoek ezeraginkorrak diren erregulazioak onartzea inplika dezakete. Adibidez, praktikan, erregulazio askok kanpo eragina guztiz debekatzen dute (erretzea debekatu, isurkinak debekatu ...). Baina eraginkortasunak hori eskatzen du?
- Optimoa izateko “pertsonalizatua” izan behar du, jaulkitzaile bakoitzak sortzen duen kaltearen arabera hain zuzen ere. Baina praktikan, informazio arazoengatik uniformeak izaten dira. (Adibidez, fakultatean erretzea debekatuta dago baina kalte berdina eragiten da klasean erretzean, bulegoetan erretzean, pasilloetan erretzean..?)
- Soluzio koaktiboa denez, kanpo eragin positiboen kasuan aplikatzea zailagoa izaten da (adibidez, garraio publikoaren erabilera derrigortzea). Baina zeharkako erregulazioak onar daitezke, gure askatasuna guztiz mugatu gabe (bidesariak, gutxieneko bidaiari kopurua behartu ordu puntetan, errei bereziak bidaiari kopuru batetik gorakoentzat...)

BESTE SOLUZIO BATZUK

- Adibidez, aipatutako azken erregulazioarekin erlazioan “JAULKIPENESKUBIDEEN MERKATARITZA” dago: herrialde bateko sektore ezberdinen artean edota herrialde ezberdinen arteko jaulkipen eskubideen salerosketan datza. Horrela, esleitu zaien kutsatzeko kuota baino gehiago kutsatzen duten sektore/herrialdeek esleitutako kuota baino gutxiago kutsatzen dutenei kutsatzeko baimenak eros ahal izango diete.
- Beste aukera bat erabaki-unitate zabalagoak sortzea izan daiteke, sortzaileak eta hartzaileak barneratzen dituenak. Horrela, erabakiak hartzerako orduan inplikaturik dauden agente guztien kostu eta mozkinak hartzen dira kontuan

3.2.2.5. BESTE MERKATU-AKATS BATZUK

1) INFORMAZIO EZPERFEKTUA ETA GARESTIA

- Merkatuen funtzionamendu eraginkorrerako beste baldintza bat informazio perfektua da: kontsumitzaile eta produktugile guztiek ondasun eta produkzio faktoreei buruzko informazio guztia dute, baliagarritasun-funtzioak, aurrekontu-murritzapenak eta ekoizpen-funtzioak guztiz mugatuak izateko. Baina baldintza hau arlo askotan ez da betetzen.
- •Kasu batzuetan merkatuak berak konpontzen du arazoa, informazioa "salduz": adibidez, aldizkari espezializatuak
- Beste kasu batzuetan esku-hartze publikoa behar izaten da akatsa zuzentzeko: produktuen kalitatearen erregulazioa, arlo batzuetan prezio maximoen erregulazioa

2) MERKATU EZ OSOAK

- •Merkatuen funtzionamendu eraginkorrerako beste baldintza bat merkatu osoen baldintza da: kontsumitzaile eta produktugile guztiek desio dituzten ondasun eta produkzio-faktore guztientzat akatsik gabe funtzionatzen duen merkatu bat dago.
- Baina askotan hau ez da horrela izaten: merkaturik eza batez ere kreditu eta aseguruaren merkatuetan eman da. •Merkatu-akats hau bi arrazoiengatik sortzen da:

- TRANSAKZIO-KOSTUAK: Merkatu horiek ezartzearen kostua handiegia izan daiteke merkatarikopuruarekiko.

- Baina gehienetan arazoa aseguratzailleak eta aseguruaren erosle potentzialek duten INFORMAZIO ASIMETRIKOA da, bi modutara azaltzen dena

- **AURKAKO HAUTESPENAREN ARAZOA**: Ezbehar bat izateko arrisku ezberdineko pertsonak daudenean azaltzen da (gaixotasun bat, kotxe-istripu bat...) Aseguratzailleak ezin baditu banakako arriskuak bereiztu, primak ezartzerako orduan jarrai dezakeen politika bat itxarondako batez besteko galeretan oinarritzea da. Arrisku handiko gizabanakoen alde eta baxukoaren aurka diskriminatzen du: muturreko kasuan azken hauek aseguruari uko egiten badiote, batez besteko galerak gora egingo du merkatu hauen funtzionamendua eragotziz. Merkatuak ezin badu arazo hau konpondu (mediku-araketen bidez, e.a), esku-hartze publikoaren beharra sortuko da. Adibidez:
 - Erregulazioa: derrigorrezkotasuna kotxe-aseguruetan
 - Ekoizpen publikoa: Gizarte Segurantzza
- **TRUKAKETA ARRISKUA**: Aseguru bat erosi nahi dutenek, aseguratzaillearentzat ikus ezinak diren ekintzen bitartez, ezbehar bat egotearen probabilitatean edo bere tamainan eragin badezakete (suteaseguruak, langabezia-aseguruak ...) Kasu batzuetan aseguratzailleak arazo hau zeharka murriztu dezake, primak historialaren arabera egokituz, estaldura batzuk soilik eskainiz edo pertsona batzuk baztertuz. Beste kasu batzuetan ez du inoiz zerbitzu hori eskainiko, eta esku-hartze publikoa behar izango da (adib, langabezia-aseguruak)

3.3. Esku-hartze publikoa ekitatea lortzeko

3.3.1. EKITATE BIRBANAKORRA ETA GIZARTE-LIBERALISMOA

Orain arte, eraginkortasunaren ikuspuntutik defenda daitezkeen esku-hartze publikoak aztertu ditugu. Baina esku-hartze publikoak EKITATEaren ikuspuntutik ere izan daitezke desiragarri

ONGIZATE EKONOMIA:

- Helburua: Max GIZARTE -ONGIZATEA Bi baldintza horretarako:
- Sistema ekonomikoa ERAGINKORRA izan (Pareto)
- Sistema ekonomikoa EKITATIBOA izan (ezin bada, errenta/aberastasuna berresleituz Gizarte-Ongizatea handitzea)

ZER DA EKITATEA edo GIZARTE-JUSTIZIA?

Muturreko jarrerak

- Filosofia libertarioa: Merkatuak sortzen duen emaitza defendatzen dute, beti ere modu zilegi batean sortu bada. Beraz, ekitatea lortzeko eskuhartze publikoari uko egiten diote
- Filosofia kolektibista: Emaitzen berdintasun absolutua defendatzen dute. Beraz, edozein motako esku-hartze publiko defendatzen dute helburu hori lortzeko

GIZARTE LIBERALISMOA, ongizate ekonomiaren oinarria dena eta mendebaleko merkatu ekonomietan esku-hartze publikoaren gidari, bi muturreko jarrera horien artean kokatzen da. Errentaren birbanaketa sektore publikoaren funtzio zilegia da baldin eta Gizarte-Ongizatea handitzea lortzen bada. Ikusiko dugun bezala, GO handitzea lortzen duten birbanaketak boluntarioak eta koaktiboak izan daitezke Beraz, Sektore Publikoak ekitate-helburuak bi modutara lor ditzake:

a) Birbanaketa boluntarioak bideratuz

b) Birbanaketa koaktiboen bidez, GO maximotzen duen banaketa lortuz

a) BIRBANAKETA BOLUNTARIEN BIDERAKETA

Ekonomian altruistak diren gizabanakoak egotea eskatzen du.

Orain arte berekioiak zirela suposatuz, soilik beren ongizateaz arduratzen zirela


- Berekioiak badira:

Baliagarritasunaren Aukera-Muga:

$$(Y_A, Y_B) \leftrightarrow (U_A, U_B)$$

$$X: (Y_g, 0) \leftrightarrow (U_A \max, 0)$$

$$Y: (0, Y_g) \leftrightarrow (0, U_B \max)$$



-

Ordea, altruistak diren gizabanakoak baditugu, hau da, ongizate propioaz gain gainerakoen ongizateaz ere arduratzen direnak, orduan Baliagarritasun Aukera-Mugaren itxura aldatu egiten da:

- ADIBIDEZ, A altruista bada baino B ez

Baliagarritasunaren Aukera-Muga:


Demagun A-k B-rentzat desio duen baliagarritasun minimoa $U_B \min$ dela eta " α " errentarekin lortzen duela

$$(Y_A, Y_B) \leftrightarrow (U_A, U_B)$$

$$X: (Y_g, 0) \leftrightarrow (U_A < U_A \max, 0)$$

$$Z: (Y_g - \alpha, \alpha) \leftrightarrow (U_A \max, U_B \min)$$



$$Y: (0, Y_g) \leftrightarrow (0, U_B \max)$$



Itzul gaitzen altruista A gizabanakoa deneko kasura eta demagun merkatuak sortzen duen esleipena X dela :

- Testuinguru honetan, X-tik Z-rainoko errentabirbanaketak birbanaketa Pareto Eraginkorrak dira, bi gizabanakoen ongizatea handitzen dutelako UA UB X Y Z UBmin Aurreko arrazoiarengatik, X eta Z puntuak (X barne eta Z kanpo) bitarteko esleipenak ez dira esleipen eraginkorrak. .

Esleipen eraginkorrak soilik Z eta Y puntuak bitartekoak dira (biak barne



Testuinguru honetan ZEIN DA SEKTORE PUBLIKOAREN PAPEREA baldin eta merkatuak sortzen duen emaitza X eta Z bitarteko bada?

- Soilik bi gizabanako baleude, bat ere ez. A prest egongo litzateke B-ri biak Z puntuan kokatzeko moduko errenta kantitatea transferitzeko.
- Esku-hartze publikoaren justifikazioa A eta B bezalako gizabanako asko ditugunean azaltzen da Kasu honetan, “aberats altruisten eskuetatik behartsuen eskuetarainoko errenta-birbanaketa” ondasun publiko batean bihurtzen da: Altruista batek errenta-transferentzia bat eginez gero, gainerakoek ere irabazten dute. Beraz, dohainezko erabiltzaileak izateko pizgarria izan dezakete. Sektore Publikoak, zerga eta transferentzien bidez, “boluntarioak” izan beharko liratekeen birbanaketa horiek bidera ditzake, ekonomiaren eraginkortasuna hobetuz.

b) BIRBANAKETA KOAKTIBOAK

Birbanaketa boluntarioek gehienez Z punturaino eramango gaituzte. Behin Z-n gaudela, birbanaketa gehigarriek B-ren baliagarritasuna handitu baino A-rena murriztu egingo dute, beraz ezin izango dira eraginkortasunaren ikuspuntutik epaitu.


Birbanaketa gehigarriak epaitzeko, pertsona arteko baliagarritasunkonparaketak dira beharrezkoak.

Konparaketa horiek EKITATEAk egiten ditu, tresna bezala GIZARTE ONGIZATE FUNTZIO bat erabiliz


- GIZARTE-ONGIZATEAREN FUNTZIOA (W), gizarte bateko justiziari buruzko iritziak laburbiltzen saiatzen den funtzio bat da Gizarte hori osatzen duten gizabanakoen baliagarritasuna aldatzean Gizarte-Ongizatea nola aldatzen den adierazten du: $W = W(U_1, U_2, \dots, U_n)$ Ekitatea kontzeptu subjektiboa denez, GOFak printzipioz edozein itxura eduki dezake, ikuspuntu filosofiko eta etiko ezberdinen arabera. Ordea, GOF batek ondorengo baldintzak betetzea desiragarria ikusten da:
 - Indibidualismoa
 - Anonimatua
 - Ezberdintasunarekiko gorrotoa

INDIBIDUALISMOA: Gizabanako baten baliagarritasuna handitzen bada besteena murriztu gabe, W handitu behar da. Hau da: $dW(\cdot)/dU_i > 0$ i Banakako lehentasunak errespetatzen direla adierazten duen propietatea da: gizabanako guztientzat bi esleipen baliokideak badira

bakar batentzat izan ezik, orduan gizarteak gizabanako horren lehentasunak errespetatu beharko lituzke: Adib: $W(4,5) > W(3,5)$
 Grafikoki: GO geziek adierazitako norabidean handitzen dela adierazten duen propietatea



ANONIMATOA: Gizarte-Ongizatea soilik baliagarritasun-banaketak duen egituraren menpe egon behar du, eta ez "nork lortzen duen zer" arazoaren menpe. Banakako lehentasunak konparatzean inpartzialtasuna adierazten du: Adib: $W(4,5) = W(5,4)$ Grafikoki: Gizartearen indiferentzi-kurbak simetrikoak dira 45 gradutako ardatzarekiko





DESBERDINTASUNAREKIKO GORROTOA:

Baliagarritasun-banaketa berdina ezberdina baino gehiago desio dira. Hau da, GOF batek bi baliagarritasun-banaketa berdina baloratzen baditu, $W(X) = W(Y)$, orduan bi banaketa horien arteko konbinaketa lineal batekin Gizarte Ongizatea handiagoa izan behar du, hau da, $W(X+(1-\lambda)Y) > W(X) = W(Y)$ Grafikoki, GIK hertsiki ganbilak izatea eskatzen du.

Desberdintasunarekiko gorrotoaren ikuspuntutik bi muturreko kasuak hauek dira:


- Filosofia UTILITARISTA (Harsanyi): $W(U_A, U_B) = U_A + U_B$
 Desberdintasunarekiko gorrotirik gabeko funtzioa: Soilik baliagarritasun-maila globala axola zaio, ez bere banaketa. Irabazleen irabaziak galtzaileen galerak baino handiagoak diren bitartean, birbanaketak justifikatuta daude, nahiz eta desberdintasun izugarria egon Grafikoki: GIK linealak dira. Indibidualista eta anonimoa da.
- -RAWLS-en filosofia: $W(U_A, U_B) = \min(U_A, U_B)$
 Desberdintasunarekiko gorroto maximoa adierazten duen funtzioa Maximin irizpidea: sektore publikoaren helburua, okerren dagoen gizabanakoaren egoera maximotzea izan behar da Grafikoki: GIK-k L itxura dute. Anonimoa da baino ez da indibidualista: Adib: $W(3,4) = W(3,5)$



Behin **GIZARTE-ONGIZATEAREN FUNTZIOA** definitu ondoren, Gizarte-Optimoa ondorengo problema ebatziz lortuko da:

MAX $W(U_A, U_B)$
 k.h $U_A = G(U_B)$ (non G(.) Baliagarritasunaren Aukera-Muga den)


Horrek **O** esleipenean kokatzen gaitu.




Birbanaketa **boluntarioek gehienez** Z esleipenera eramaten gaituzte, baino **gizartearentzat desiragarria** da **O** esleipeneraino errenta birbanatzen jarraitzea. Horretarako **birbanaketak koaktiboak aplikatu** beharko ditugu

Baino, birbanaketa koaktiboak gai izango dira O esleipena lortzeko? Erabiltzen ditugun tresnen (zerga-transferentzia) izaeraren menpe dago erantzuna


- **TRESNA NEUTRALAK:** Soilik eros-ahalmena eskualdatzen dute, eraginkortasun kosturik eragin gabe.
- **TRESNA EZ-NEUTRALAK** (gehienak): Eraginkortasun kostuak eragiten dituzte, lortutako zerga bilketarekin konpentsa ezin daitekeen baliagarritasun galera bat: (eragin gatazka)



- ERAGINKORTASUN ETA EKITATEAREN ARTEKO GATAZKA: Tresna ez-neutralek eragindako eraginkortasun kostuek Baliagarritasunaren Aukera-Muga barrurantz desplazatuko dute GATAZKA hori ikusita, pena merezi al izango du koaktiboki errenta birbanatzeak? Erantzuna, azkenean lortzen dugun emaitzaren menpe egongo da



- Emaitza Z eta P esleipenak bitarteko bat bada, pena merezi izango du, Z-n baino GO handiagoa lortzen delako: Adibidez R esleipenean
- Emaitza P eta Q esleipenak bitarteko bat bada, ez du pena merezi izango, Z-n baino GO txikiagoa lortzen delako: Adibidez S esleipenean



3.3.2. EKITATEAREN BESTE IKUSPEGI BATZUK

EKITATE HORIZONTALA

- Diskriminaziorik ezarako baldintza: Sektore Publikoak berdin tratatu behar ditu garrantzizko aspektuetan berdinak diren gizabanakoak
- Interpretazio ez horren erraza: zer da berdina izatea? Argi dago, sexuan, arrazan, ideia politiko edo erlijioso eta abarretan oinarritutako ezberdintasunak ez direla garrantzitsuak baino zer gertatzen da errentan, lehentasunetan, adinea, oinarritutako ezberdintasunekin? Bi oinarritzko interpretazio
 - TEORIKOA BALIAGARRITASUNEN TERMINOETAN (FELDSTEIN): $U_A(.) = U_B(.)$ $U_A T(.) = U_B T(.)$ Lehentasun ezberdineko gizabanakoentzat fiskal tratatu ezberdina eskatzen du
 - PRAKTIKOA Politika publikoak diseinatzean SPak dituen mugapenen terminoetan

AUKERA-BERDINTASUNA

- Gizabanako guztiek errenta edota baliagarritasuna lortzeko aukera berdinak izan behar dituzte: Hezkuntzaren eskuraketan, justizian, sanitatean, garrantzizko informazioan... aukera berdinak.
- Aukerak berdintzea ("ex ante" berdintasuna) eskatzen du, ez emaitzak berdintzea (ez "ex post" berdintasuna): Norberaren esfortzuan, aurrezkiari, zorian, arriskuarekiko joeran e.a. oinarrituriko emaitzen ezberdintasunak zilegiak dira. Irizpide indibidualista da, gizabanakoen lehentasunak errespetatzen dituelako

EKITATE KATEGORIKOA

- Inbidividualista ez den eta “ex post” emaitza zehatz batzuen berdinketa eskatzen duen irizpidea
 - Gizarteak, lehentasunezko ondasun zehatz batzuen banaketa justuarekin konpromiso bat du: sanitatea, hezkuntza, etxebizitza ... Beraz, SPak ondasun horien gutxieneko kantitate bat kontsumitu ahal dugula bermatu behar du. Kasu batzuetan gainera, ondasun horiek horren garrantzitsuak ikusten dira, beren kontsumora behartu egiten gaituela: Oinarrizko irakaskuntza, derrigorrezko txertoak ...
 - Sektorre Publikoaren ikuspegi paternalista
-

4. GAIA. GIZARTE -HAUTESPENA ETA SEKTORE PUBLIKOAREN PORTAERA

4.1. GIZARTE-HAUTESPENAREN ARAZOA

4.1.1. SARRERA

“Gizarte-hautespena”, erabaki kolektiboak hartzeko prozesua da eta Sektorre Publikoaren eskuetan dago. Gizarte demokratikoetan, Sektorre Publikoa hiritarrek sortutako agente ekonomiko bat da, merkatuek eraginkorki edota ekitatiboki hornitu ez dituzten ondasunak kolektiboki hornitzeko. •Beraz, erabaki kolektiboak hartzerako orduan, ez lituzke helburu propiorik izan behar, soilik banakako lehentasunak bete beharko lituzke Gizabanako guztiak berdina balira, Gizarte hautespeneraren arazoa oso erraza izango litzateke: lehentasun horiek bete (zergak diseinatzerako orduan, zertan gastatu erabakitzerako orduan ...)

Baina orokorrean ezberdinak direnez, lehenengo pausua horiek bateratzea izango da, Gizarte-Hautespenerako Erregela bat erabiliz.

“Gizarte-Hautespeneraren Teoriak”, baterapen hori nola egin eta baterapen-mekanismo ezberdinen propietateak aztertzen ditu. Baterapena burutzean, bi modutara joka dezakegu:

- Banakako lehentasunetan hautagai ezberdinen ordena soilik kontuan harturik → BOZKETA-SISTEMAK, orokorrean.
- Ordenaz gain lehentasunen intentsitatea kontuan harturik → Implizituki Gizarte-Ongizatea kontuan hartzea inplikatzeko du: hautagai batekin gizabanako batek zenbat eta baliagarritasun handiagoa lortu, ceteris paribus, orduan eta handiagoa izango da hautagai horrekin lortzen den GizarteOngizatea, eta beraz hautatua izatearen probabilitatea.

Gu batez ere Bozketa-Sistemetan zentratuko gara

GIZARTE-HAUTESPENERAKO ERREGELAK (GHE):

Demagun ekonomia batean “n” gizabanako eta “m” hautagai ditugula (X_1, X_2, \dots, X_m). Gizabanako bakoitzak lehentasun-erlazio trantsitiboa duela suposatuko dugu, Rj, hautagai-multzoaren gainean mugaturik:

- $X_i R_j X_k$ j gizabanakoarentzat $X_i X_k$ bezain ona edo hobea da
- $X_i R_j X_k$ eta ez $X_k R_j X_i$ $X_i P_j X_k$ j gizabanakoarentzat $X_i X_k$ baino hobea da

Orokorrean lehentasunak ezberdinak izango direnez, lehentasun horiek bateratu egin behar dira, GHE bat erabiliz GHE bat banakako interes ezberdinen baterapen-irizpide bat da, zeinek, (R_1, R_2, \dots, R_n) lehentasunak bateratuz R lehentasun globalak sortzen dituen, erabaki kolektiboak R -ren bidez hartzeko: $R = f(R_1, R_2, \dots, R_n)$

GIZARTE-HAUTESPENERAKO ERREGELA BATEK BETE BEHARREKO PROPIETATEAK

ARROW-k (1951) Gizarte-hautespenerako Erregela arrazional eta demokratiko batek ondorengo propietateak bete behar zituela ezarri zuen:

- 1) MUGATURIK GABEKO DOMEINUA (U): GHE bat edozein banakako lehentasunekiko egon behar du mugaturik, egoera posible guztietan funtzionatu behar du. Propietate honek banakako lehentasun guztiak onartzen direla ziurtatzen du.
- 2) PARETO OPTIMALITATE AHULA (PO): Gizabanako guztiek X_i hautagaia X_k baino gehiago desio badute (hau da, $j, X_i P_j X_k$), orduan gizarteak ere gehiago desio behar du (hau da, $X_i P X_k$)
- 3) DIKTATORERIK EZA (AD): • GHE demokratikoa izan behar du. • Horrela, erregelak ezin ditu, gainerako gizabanakoen lehentasunak kontuan hartu gabe, gizabanako bakar baten lehentasunak islatu.
- 4) ARRAZIONALTASUNA (R): • GHE-ren emaitza, hau da, R , trantsitiboa izan behar du. • Hau da

$$\left. \begin{array}{l} X_i R X_k \\ \text{eta} \\ X_k R X_r \end{array} \right\} \Rightarrow X_i R X_r$$
- 5) GARRANTZIRIK GABEKO HAUTAGAIEKIKO INDEPENDENTZIA (IAI) Demagun (R_1, R_2, \dots, R_n) lehentasunekin $(X_i R X_k)$ Demagun orain banakako lehentasunak aldatu egiten direla, $(R'_1, R'_2, \dots, R'_n)$, baino X_i eta X_k hautagaien ordena erlatiboa aldatu gabe. Orduan GHE-ren emaitza $(X_i R' X_k)$ izan behar du ere
 Hau da, edozein X_i eta X_k bi hautagaien arteko GHE-ren hautespena, soilik bi hautagai horien gaineko banakako lehentasunen menpe egon behar du, eta ez, 3. hautagai baten aurrean hautagai horien posizio erlatiboaren menpe. IAI propietatearen ondorio garrantzitsu bat, lehentasunen intentsitatean oinarritzen diren GHE-k beteko ez duten propietate bat izatea da:

ADIBIDEA: $GHE = U_1 + U_2 + U_3$

(R_1, R_2, \dots, R_n)

	U_1	U_2	U_3	Σ
X_1	5	4	2	11
X_2	4	2	4	10
X_3	2	1	6	9

$X_1 P X_2$

$(R'_1, R'_2, \dots, R'_n)$

	U_1	U_2	U_3	Σ
X_1	5	4	2	11
X_2	4	2	6	12
X_3	2	1	7	10

$X_2 P X_1$

ARROW-ren EZINTASUNAREN TEOREMA

“Gutxienez hiru hautagai baditugu eta gizabanako kopurua finitua bada ezinezkoa da bost propietate horiek aldi berean beteko dituen GHErik aurkitzea” Beraz, GHE bat erabiltzearen “prezioa” baldintzaren bati uko egitea izango da

Zein baldintzari? Subjektibotasuna Ala ere, U eta IAI baldintzei uko egitea, PO, AD edota R propietateei uko egitea baino onargariagotzat hartzen da Hori da Ogasun Publikoan gehien erabiltzen diren GHE-k egiten dutena:

- GEHIENGOAREN BOTUAREN BIDEZKO HAUTESPENA: U-ri egiten dio uko
- GIZARTE-ONGIZATE FUNTZIOEN BIDEZKO HAUTESPENA: IAI-ri egiten dio uko

4.2 GEHIENGOAREN BOTUAREN BIDEZKO HAUTESPENA:

Demokrazia zuzenak eta zeharkako demokraziak Demokrazietan erabaki publikoak bozketaren bidez erabakitzen direnez, bozketasistemen funtzionamenduan zentratuko gara, bereziki, Gehiengoaren Botoaren bidezko Hautespenean (GBH), eta bi egoeretan aztertuko dugu:

- ZEHARKAKO DEMOKRAZIA: Hiritarrek ordezkari politikoak bozkatu eta hauek programa publikoak
- DEMOKRAZIA ZUZENA: Hiritarrek programa publikoak zuzenki bozkatu. Nahiz eta gutxi erabiltzen den, bere ikasketa garrantzitsua da:
 - Edozein bozketa-sistema baten funtzionamendua aztertzeko baliagarria da
 - Boto-emaile kopurua txikia deneko egoera askotan aplikatu daiteke (enpresa baten administrazio-kontseilua, Ministerio-kontseilua, herri galdeketeran ...)
 - Baldintza batzuen pean, bi ereduak hornidura publikoari buruzko erabaki berdinak inplikatzin dituztelako

DEMOKRAZIA ZUZENAK eta GBH:

Gehiengoaren Botoaren bidezko Hautespenearen arabera (GBH), hautagai bat kolektiboki beste bat baino hobea da ($X_i P X_k$) boto-emaileen artean gehiengoak X_i gehiago desio badu, hau da, gutxienez $(n-1)/2+1$ boto-emailek desio badute (n bakoitia dela suposatuko dugu eta bozketa guztietan gehien desio den hautagai bat dagoela)

Bestalde, X^* hautagaia GBH-ean oreka izango da baldin eta beste edozein hautagai baten aurrean gehiengoak aukeratzin badu

1 Adibidea:

Demagun 3 hautagai: X_1, X_2 eta X_3 eta 3 boto-emaile, A, B eta C, ditugula, banakako lehentasun hauekin:

$$\begin{aligned} A: & X_1 P_A X_2 P_A X_3 \\ B: & X_2 P_B X_3 P_B X_1 \\ C: & X_3 P_C X_2 P_C X_1 \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} (X_1, X_2) & \Rightarrow X_2 & (X_2 P X_1) & \text{(B eta C-ren botoak)} \\ (X_2, X_3) & \Rightarrow X_2 & (X_2 P X_3) & \text{(A eta B-ren botoak)} \\ (X_1, X_3) & \Rightarrow X_3 & (X_3 P X_1) & \text{(B eta C-ren botoak)} \end{aligned}$$

\Rightarrow **Oreka X_2 da** (gainerako hautagaien aurrean gehiengoak hautatzen duelako)

\Rightarrow lortzen diren **GIZARTE-LEHENTASUNAK:** $X_2 P X_3 P X_1$

Gainera, bozketa ordena edozein izanik, emaitza berdina lortzen dugu.

BAINO GBH-ren emaitza ez da beti horren argia.

2. Adibidea

Demagun 3 hautagai: X_1, X_2 eta X_3 eta 3 boto-emaile, A, B eta C, ditugula, banakako lehentasun hauekin:

$$\begin{aligned} A: & X_1 P_A X_2 P_A X_3 \\ B: & X_2 P_B X_3 P_B X_1 \\ C: & X_3 P_C X_1 P_C X_2 \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} (X_1, X_2) & \Rightarrow X_1 & (X_1 P X_2) & \text{(A eta C-ren botoak)} \\ (X_1, X_3) & \Rightarrow X_3 & (X_3 P X_1) & \text{(B eta C-ren botoak)} \\ (X_3, X_2) & \Rightarrow X_2 & (X_2 P X_3) & \text{(A eta B-ren botoak)} \end{aligned}$$

\Rightarrow **Ez dago orekarik** (gainerako hautagai guztien aurka irabazten duen hautagairik)

\Rightarrow lortzen diren **GIZARTE-LEHENTASUNAK intrantsitiboak edo ziklikoak dira:** $X_1 P X_2 P X_3 P X_1 \dots$

BOTUAREN PARADOXA sortzen da:

Banakako lehentasun guztiak trantsitiboak izan arren, Gizarte-Lehentasunak intrantsitiboak izatea.

⇒ **BOZKETA-ZIKLOA IREKIA** bada, **ZIKLOTASUNA**ren arazoa azaltzen da, hau da, bozketa infinituki luza daiteke inolako emaitzarik sortu gabe:

$$\begin{aligned} (X_1, X_2) &\Rightarrow X_1 & (X_1 P X_2) & \text{(A eta C-ren botoak)} \\ (X_1, X_3) &\Rightarrow X_3 & (X_3 P X_1) & \text{(B eta C-ren botoak)} \\ (X_3, X_2) &\Rightarrow X_2 & (X_2 P X_3) & \text{(A eta B-ren botoak)} \end{aligned}$$

Orduan, 3. bozketaren ondoren, A-k berriz ere X_2 eta X_1 kontrajartzea eskatuko luke.

Baino jarraian, C-k, X_1 eta X_2 kontrajartzea eskatuko luke, eta jarraian B-k X_3 eta X_2 ...

Eta berriz ere hasieran bezala egongo ginatke

Ziklotasunarekin amaitzeko modua, **BOZKETA IXTEA** da, hau da, bozketari amaiera bat jartzea.

Nola? Dagoeneko bozkatua izan den eta galtzaile irten den hautagai bat berriz ere bozkatua izateko aukera baztertuz ⇒ Arazoa: **AGENDAREN TRUKAKETA**

⇒ **AGENDAREN TRUKAKETAREN ARAZOA:**

⇒ **GBH-ren emaitza, hautagaien bozketa ordenaren menpe egotea. Beraz, agenda diseinatzeko aukera duenak, bozketen ordena aproposa hautatuz nahi duen emaitza lor dezake. ADIBIDEAK:**

Ordena (X_1, X_2) eta gero (irabazlea, X_3) bada:

$$\begin{aligned} (X_1, X_2) &\Rightarrow X_1 & (X_1 P X_2) & \text{(A eta C-ren botoak)} \\ (X_1, X_3) &\Rightarrow X_3 & (X_3 P X_1) & \text{(B eta C-ren botoak)} \end{aligned} \Rightarrow \text{Emaitza } X_3$$

(Orain ezin izango genuke jarraian X_3 eta X_2 kontrajarri, X_2 dagoeneko bozkatua izan delako eta bozketan galdu duelako)

Ordena (X_2, X_3) eta gero (irabazlea, X_1) bada:

$$\begin{aligned} (X_2, X_3) &\Rightarrow X_2 & (X_2 P X_3) & \text{(A eta B-ren botoak)} \\ (X_2, X_1) &\Rightarrow X_1 & (X_1 P X_2) & \text{(A eta C-ren botoak)} \end{aligned} \Rightarrow \text{Emaitza } X_1$$

Ordena (X_1, X_3) eta gero (irabazlea, X_2) bada:

$$\begin{aligned} (X_1, X_3) &\Rightarrow X_3 & (X_3 P X_1) & \text{(B eta C-ren botoak)} \\ (X_3, X_2) &\Rightarrow X_2 & (X_2 P X_3) & \text{(A eta B-ren botoak)} \end{aligned} \Rightarrow \text{Emaitza } X_2$$


Zergatik sortu dira arazoak 2. bozketan eta lehenengoan berriz ez?

BANAKAKO LEHENTASUNETAN dago arazoa, zehazki 2. bozketan C-ren lehentasunetan Hau ikusteko, banakako lehentasunen MODAK (maximo erlatiboak) aztertuko ditugu (inguruko hautagai guztiak gutxiago desio direneko hautagaiak, alegia), hautagai UNIDIMENTSIONALen aurrean gaudela suposatuz (ordena daitekeen ezaugarri bakar batean ezberdintzen diren hautagaiak, alegia)

Adibidez, hiru hautagaiak aurrekontu maila ezberdinak adieraz dezakete: X_1 : maila txikia X_2 : maila ertaina X_3 . maila handia

1 Adibidea:


$$\begin{aligned} A: & X_1 P_A X_2 P_A X_3 \\ B: & X_2 P_B X_3 P_B X_1 \\ C: & X_3 P_C X_2 P_C X_1 \end{aligned}$$



A-k moda bakarra X_1 hautagaian
B-k moda bakarra X_2 hautagaian
C-k moda bakarra X_3 hautagaian

2 Adibidea:

$$\begin{aligned} A: & X_1 P_A X_2 P_A X_3 \\ B: & X_2 P_B X_3 P_B X_1 \\ C: & X_3 P_C X_1 P_C X_2 \end{aligned}$$





A-k moda bakarra X_1 hautagaian
B-k moda bakarra X_2 hautagaian
C-k bi moda: X_1 eta X_3 hautagaietan

Zera froga daiteke:

- **Lehentasun Unimodalak + Hautagai Unidimentsionalak**= GBEak oreka bat sortuko du eta Gizarte-Lehentasun transitiboak
- **Lehentasun Multimodalak + Hautagai Unidimentsionalak**= GBEak Gizarte-Lehentasun intransitiboak sor ditzake. Lehentasunen multimodalatasuna beharrezko baldintza da baino ez da baldintza nahikoa GBEak arazoak izateko. Adib: Hiru botoemaileen lehentasunak C-renak izango balira ez legoke arazorik, ahobatezkotasuna egongo zen ...

ONDORIOA, Arrow-ren propietatean arabera:



↳ Eskakizun gogorregia al da? Lehentasan multimodalek “muturreko portaera” adierazten dute, eta posibleak izan arren, ez dirudite oso orokorrak

BOTUEMAILE ERTAINAREN GARRANTZIA

Lehentasan Unimodalak + Hautagai Unidimentsionalak= GBEak oreka bat sortuko du eta BOTOEMAILE ERTAINAK gehien desio duen HAUTAGAIAREKIN egingo du bat Nor da boto-emaiile ertaina?

Demagun gure hautagaiak gastu maila ezberdinak direla. Boto-emaiile ertaina, gastu optimotzat, gastu optimoen banaketaren medianan dagoen gastu maila duen boto-emaiilea da.

ADIBIDEA:

Herri bateko jai batzordeak, herriko jaietan kontzertuetarako zuzenduko duen aurrekontuaren zatia erabaki behar du. Bost kide ditu eta bakoitzaren **gastu maila optimoa** honakoa da:

$$\begin{aligned} G_A^* &= 0 \\ G_B^* &= 10.000 \text{ €} \\ G_C^* &= 50.000 \text{ €} \\ G_D^* &= 100.000 \text{ €} \\ G_E^* &= 200.000 \text{ €} \end{aligned}$$

Boto-emaiile ertaina C da, erdiak berak baino gastu maila txikiagoa eta beste erdiak handiagoa nahi duelako.

GBE erabiliz, zein gastu maila onartuko da?

Kontuan hartzeko: Lehentasan unimodalak direnez, (G_i, G_k) hautespenean botoa honakoa izango da:

- $G_i < G_k < G^* \Rightarrow G_k$
- $G^* < G_i < G_k \Rightarrow G_i$
- $G_i < G^* < G_k \Rightarrow$ Ezin dugu aurrean

Aurrekoa jakinda, **GBE aplikatu dezagun:**

- (0, 50.000) \Rightarrow 50.000-k irabazten du (C,D eta E)
- (10.000, 50.000) \Rightarrow 50.000-k irabazten du (C,D eta E)
- (50.000, 100.000) \Rightarrow 50.000-k irabazten du (A,B eta C)
- (50.000, 200.000) \Rightarrow 50.000-k irabazten du (A,B eta C)

Beraz, OREKA $G_C^* = 50.000 \text{ €}$, boto-emaiile ertainak gehien desio duen hautagaia hain zuzen ere

Ondorio hau garrantzitsua da, Gehiengoaren Botoaren Erregelari **ahalmen auresankorra** ematen baitio.

GBE-ren OREKAREN ERAGINKORTASUNA

Eraginkorra al da hautagaiak unidimentsionalak eta lehentasanak unimodalak direnean lortzen den GBE-ren oreka?

- **EZ NAHIATEZ:** Arrazoiak: Eraginkortasunak, lehentasanen intentsitatea kontuan hartzea eskatzen du, baino GBEak ez du egiten

- Zehazki, eraginkortasunak eskatzen du:
 - Hartutako erabakiekin soilik irabazleak egotea (Paretoren irizpidea hertsiki)
 - Irabazleen irabaziak galtzaileen galerak baino handiagoak izatea (Kaldor-Hicks-en konpentsazio irizpidea erabiliz, Paretoren irizpidearen leunketa) Eraginkortasunak, lehentasunen intentsitatea kontuan hartzea eskatzen du, baino GBEak ez duenez egiten, soilik boto-emaile guztien lehentasunak intentsitate berekoak direnean ziurtatu dezakegu oreka hori eraginkorra izatea.
- **1 ONDORIOA:** Banakako lehentasunak intentsitate berdinekoak badira, GBEren emaitza eraginkorra izango da, gehiengoak bere aukerarekin irabazten duena beti izango delako gutxiengoak aukera horrekin galtzen duena baino handiagoa
- **2 ONDORIOA:** Banakako lehentasunak intentsitate ezberdinekoak badira, GBEren emaitzak ez du zertan eraginkorra izan behar. Kasu hauetan, batzuetan, negoziaketak emaitza eraginkorra bidera dezake. Ohiko negoziaketa erak:
 - Botoen elkartrukea
 - Elkarrekiko Kontzesioen sistema
 Baztergarriak ez diren proiektuak egotea eskatzen dute

Botoen elkartrukearen eta Elkarrekiko Kontzesioen arazoak:

- Aurreko adibideetan emaitza eraginkorrak bideratzeko gai izan badira ere, emaitza ezeraginkorrak bidera ditzakete ere.
- Eraginkorra izan ala ez izan, argi dago bideratzen den emaitza ez ekitatiboa izango dela, galtzen irteten den gutxiengoaren galerak konpentsatzen ez diren neurrian

HAUTAGAI MULTIDIMENSIONALAK

- Orain arte GBE-ri buruz eman ditugun ondorioak hautagaiak unidimentsionalak zirela suposatuz eman ditugu. Nola aldatzen dira ondorio horiek hautagaiak multidimentsionalak badira? HAUTAGAI MULTIDIMENSIONALAK
- Kramer-ek (1973) frogatu zuen kasu honetan lehentasun unimodalak ez zirela nahikoak izango oreka ziurtatuko. Soilik banakako lehentasun guztiak berdinak direnean (hau da, ahobatezkotasuna dagoenean) ziurta daitekeela ziklotasunarik eza.

ZEHARKAKO DEMOKRAZIAK eta GBH:


- Orain arte, GBE-ren funtzionamendua demokrazia zuzen batean aztertu dugu.
- Errealitatean ordea, gastu-erabakiak politikariek hartzen dituzte, ez hiritarrek zuzenean: Hiritarrek → Ordezkarri politikoak → Programa publikoak
- Zeharkako demokrazietan agente gehiago hartzen dutenez parte, GBE-ren emaitzan faktore gehigarriak eragiten dute:
 - Hiritarren portaera politikariak hautatzean
 - Politikarien helburuak
 - Presio-taldeen indarra

Ala ta guztiz ere, DOWNS-HOTELLING-ek frogatu zutenenez, baldintza batzuen pean GBE-ren emaitza berdina izango dela bai demokrazia zuzen batean zein zeharkako demokrazia batean

DOWNNS-HOTELLING-en EREDUA Balizkoak:


- Soilik bi alderdi politiko daude, beren helburua boto kopurua maximotzea delarik
- Boto-emaileak soilik "ideologian" oinarritzen dira alderdi bati botoa ematerako orduan
→ Hautagai unidimentsionalak: ezkerreko ideologia, zentroko ideologia, eskuineko ideologia, ...
- Ideologiari buruzko boto-emaileen lehentasunak unimodalak dira

Demagun gehien desio duten ideologiaren araberako boto-emaileen banaketa honakoa dela:



non I_c boto-emaile ertainak gehien desio duen ideologia den

- Demagun 1 alderdiak I_c -ren eskuinean dagoen I_1 programa proposatzen duela.
- Lehentasunak unimodalak direnez, **2 alderdiak** proposatzen duen programa $I_c < I_2 < I_1$ bada **hauteskundeak irabaziko ditu**.
- Honen aurrean, eta soilik boterea lortzea axola zaienez, hurrengo hauteskundeetan **1 alderdiak** $I_c < I_1 < I_2$ proposatuz **hauteskundeak irabaziko ditu**.
- Noiz amaituko da prozesua? Bi alderdiek **boto-emaile ertainaren ideologiari oso hurbil dauden programak** proposatzen dituztenean.



Zein izan da GBE-ren emaitza?

Boto-emaile ertainak gehien desio duena, demokrazia zuzenetan bezala.

Downs-Hotelling-en ereduaren emaitzak kontsistenteak dira tendentzia bipartidista duten herrialde batzuetan ikusitako portaerarekin (EEBB, Erresuma Batua).

Baino mugapenak ditu:

- Ezin dira alderdi anitzeko sistemetara orokortu:
- Alderdiek ez dute argi eta garbi garaipena emango dieten estrategiarik
- Boto-emaileek ere estrategia ezberdinak jarrai ditzakete: boto baliagarria, ... Ezin dira ideologiaz gain beste elementu batzuk kontuan hartzen dituzten egoeretara orokortu: hautagai multidimentsionak... Prozesu politikoaren aspektu asko ahazten ditu:
 - Abstentzioa (boto-emaile ertaina erreal vs efektiboa), burokraten eragina, presio-taldeen indarra, ...
- Faktore hauek guztiek GBE-ren emaitza izugarri alda dezakete, beraz ezin izango da horren erraz aurrean

4.3 GIZARTE-HAUTESPENERAKO ERREGELAN TRUKAKETA

Orain arte, bozketak burutzean, gizabanakoek beren benetako lehentasunak adierazten zituztela suposatzen dugu.

Baino gezurra esanaz irabazi ahal badute, gezurra esango dute

- **DEFINIZIOA:** GIZARTE-HAUTESPENERAKO ERREGELA bat TRUKAKORRA dela esaten da, beren lehentasunei buruz gezurra esanaz erregelaren emaitza beren interes alde alda badezakete.

Adibidea. GHE: BORDAREN KONTUA

Demagun 4 hautagai: X_1, X_2, X_3 eta X_4 eta 3 boto-emaile, A, B eta C, ditugula, banakako lehentasun hauekin:

- A: $X_1 P_A X_2 P_A X_3 P_A X_4$
- B: $X_2 P_B X_3 P_B X_4 P_B X_1$
- C: $X_3 P_C X_4 P_C X_1 P_C X_2$

Bordaren Kontuan "puntuak" ematen zaizkie hautagaiei, kasu honetan 4,3,2 eta 1 puntu, hain zuzen ere:

	X_1	X_2	X_3	X_4
A	4	3	2	1
B	1	4	3	2
C	2	1	4	3
Guztira	7	8	9	6

Gizarte-lehentasunak $\Rightarrow X_3 P X_2 P X_1 P X_4$

Nola truka daiteke aurreko bozketa?

Demagun A gizabanakoak aurreko lehentasunak aitortu beharrean honako hauek aitortzen dituela:

$$A: X_2 P_A X_1 P_A X_4 P_A X_3$$

	X_1	X_2	X_3	X_4
A	3	4	1	2
B	1	4	3	2
C	2	1	4	3
Guztira	6	9	8	7

Gizarte-lehentasun berriak $\Rightarrow X_2 P X_3 P X_4 P X_1$

Beraz orain X_2 -k irabazten du:

A-rentzat $X_2 P_A X_3$ denez, GHE-ren emaitza bere alde aldatu du, hau da, **erregela trukatu du.**

Gibbard eta Satterthwaite-ek frogatu zutenez, trukaketa ezaugarri nahiko komuna da Gizarte-Hautespenerako Erregeletan.

Frogatu dutenez, gutxienez 3 hautagai izanik, ezinezkoa da Arrow-ren U, AD eta PO eta ez trukaketa beteko dituen GHE-rik aurkitzea.

Ere frogatu dute, GHE bat "ez trukakorra" izateko beharrezko baldintza dela IAI eta R propietateak betetzea.

Horrela, Bordaren Kontua trukakorra da ez duelako IAI betetzen (intentsitatea kontuan hartzen duten GHE guztiek bezala)

$$R_A, R_B, R_C \text{ lehentasunekin: } X_3 P_A X_2$$

A-k lehentasunak aldatzen ditu, baino X_2 eta X_3 -ren ordena erlatiboa aldatu gabe eta:

$$X_2 P_A X_3 \Rightarrow \text{Beraz ez du IAI betetzen}$$

Gehiengoaren Bozketaren Erregelari dagokionez: -Haut. Unid + lehen Unim \rightarrow R bete \rightarrow Ez trukakorra -Gainerako kasuak \rightarrow R ez bete \rightarrow Trukakorra

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN PORTAERA:

Orain arte, Sektore Publikoa helburu propiorik gabeko agentea dela suposatu dugu: bere helburu bakarra banakako lehentasunak betetzea zen. Errealitatean ordea, erabaki publikoak hartzeko prozesua oso konplexua da, eta helburu propio ezberdinak dituzten agente ezberdinek hartzen dute parte bertan: burokratak, politikariak, boto-emaileak, presio-taldeak, ... Agente hauek, erabaki publikoak beren interesen alde desbidera ditzakete, honek suposa dezakeen eraginkortasun eta ekitate- kostuarekin.

4.4.1. BUROKRATAK

Burokratak, Sektore Publikoaren enplegatuek dira. Beren eginbeharra, politikariek gastu-erabakiak har ditzaten behar duten informazio tekniko ematea eta politikariek onartutako programak praktikan jartzea da. Horrekin erabaki publikoetan eragin dezakete.

4.4.2. POLITIKARI ETA BOTO-EMAILEAK

Bozketa-sistemak aztertu ditugunean, boto-emaile guztiek botoa ematen dutela eta hautagai guztiei buruzko informazioa dutela suposatzen dugu.

Praktikan ordea, arrazoi ezberdinegatik, boto-emaile askok ez dute botoa ematen.

Bestalde, botoa ematen dutenen artean, ondo informatuta eman beharrean, askok, indikatzaile sinple eta subjektiboetan oinarritzen dute beren botoa

Politikarien helburua boterea mantentzea bada, portaera honetaz baliatuko dira eta gastu-politika efektistak onartuko dituzte, gastu-politika efektibo eta eraginkorrak onartu beharrean

4.4.3. PRESIO-TALDEAK

• Interes komunak dituzten gizabanako-taldeak dira eta erabaki publikoek interes horien alde egin dezaketenei saiatzen dira (patronala, sindikatuak, ekologistak, giza-eskubideak defendatzen dituztenak, ...)

4.5. SEKTORE PUBLIKOAREN HORNIDURAREN AKATSAK

Ikusi dugunez, merkatuek askotan baliabideen esleipen ez-eraginkorrak (eta ezekitatiboak) sortzen dituzte, gehienetan azpihornidura bat sortuz.

Esku-hartze publikoak egoera hau hobetu dezake. Baina honek ez du esan nahi praktikan hobetu egingo duenik. Eraitza, ekonomian dagoen informazioaren eta erabaki kolektiboak hartzeko mekanismoaren menpe dago.

- Informazio perfektua eta Sektore Publikoa borondate oneko diktatorea bada, erabaki publikoak eraginkorrak
- SP demokratikoa bada, nahiz eta informazioa perfektua izan, ezin dugu ziurtatu erabaki publikoak eraginkorrak izatea (bozketa-sistemen eraitza ez da orokorrean eraginkorra)
- Informazioa ez-perfektua bada, ez-eraginkortasuna oraindik handiagoa izango da (burokraten portaera, politikariena, presio-taldeak...), gehienetan gehiegizko gastu bat inplikatur

Ondorioz, merkatu akatsak ez dira argudio nahikoa esku-hartze publikoa justifikatzeko, ez-eraginkortasun mota bat beste batez ordezkatzeko egongo garelako. Orokorrean: Azpihornidura pribatua VS Gainhornidura publikoa

5.GAIA: GIZARTE-GASTUAK

5. 1. SARRERA

Ongizate Ekonomian jarduera publiko garrantzitsuetako bat biztanle guztiei behar hainbesteko bizi-maila bermatzea da. Horretarako, bi taldetan bana daitezkeen tresnak/neurriak erabiltzen dira:

- PRESTAZIO EKONOMIKOAK
- LEHENTASUNEZKO ONDASUNEN KONTSUMOA ERRAZTEKO bideratutako neurriak

1) PRESTAZIO EKONOMIKOAK:

Gizabanakoek nahi dituzten ondasun eta zerbitzuen kontsumoa bermatzera bideratutako moneta-trasferentziak dira, hau da, moneta-transferentzia ez-baldintzatuak dira. (Azken urteetan aurrekontu gastuaren %35-%40) Bi motakoak: Errentak ordezkatzeko programak. Adibidez, pentsio kontributiboak eta langabezia-asegurua (7.Gaia) Pobrezia murrizteko programak. Adibidez, pentsio ez-kontributiboak eta langabezia-sudsidioa (8.1 Gaia)

2) PREMIAZKOAK KONTSIDERATZEN DIREN ONDASUN ETA ZERBITZU ZEHATZ BATZUEN KONTSUMOA ERRAZTERA BIDERATUTA DAUDEN NEURRIAK

Are gehiago, batzuetan gizabanakoei ondasun horiek kontsumitzera behartzen zaie (adibidez, oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa da). Erabilera zehaztutara bideratuta dauden transferentziak dira eta bi motatakoak izan daitezke:

- ZUZENAK (jenerotan). Hornidura publikoa dohainekoa da (osasuna eta oinarrizko hezkuntza).
- PREZIOEN BIDEZKOAK (moneta-transferentzia baldintzatuak). Sektore Publikoak merkatuko prezioa murrizten du, horretarako mekanismo desberdinak erabiliz:
 - Errenta-transferentzia zuzenak (goi mailako ikasketak egiteko bekak). Zergetan murrizpenak edo zeharkako transferentziak (etxebizitza eskuratzeko agatikoen kenkaria PFEZn).
 - Ekoizleei diru-laguntzak ematea (zinemagintzan)

Premiazkoak kontsideratzen diren ondasun eta zerbitzu horiei LEHENTASUNEZKO ONDASUNAK edo Gizarte-Ondasunak esaten zaie.

Lehentasunezko ondasunen kontzeptua subjektiboa da eta denboran aldakorra izan daiteke. Hala ere, herrialde garatu gehienetan, SANITATEA (5.Gaia), HEZKUNTZA (6.Gaia) eta ETXEBIZITZA (8.2 Gaia) gizarte-ondasunak kontsideratuta daude.

Lehentasunezko ondasun horiei lotutako transferentziak gizabanakoentzat onuragarriak izan arren, orokorrean gizabanakoek kostu berdineko monetatransferentzia ez-baldintzatu bat jasotzea nahiago izango lukete, azken honekin kontsumo-aukera gehiago izango luketelako.

Lehentasunezko ondasun eta zerbitzuen hornidura publikoa Estatuaren paternalismoarekin lotuta dago. Hau da, Sektore Publikoak gizabanakoen lehentasunak errespetatu gabe, gizabanakoen erabakiak mugatzen ditu, zuzenak izango ez direlako ustean.

Gizabanako guztiek lehentasunezko ondasun batzuen gutxieneko kantitate bat kontsumitzeko eskubidea (batzuetan, betebeharra) dutelako ekitatearen ideia paternalista horri EKITATE KATEGORIKOA esaten zaio.

5.2. LEHENTASUNEZKO ONDASUNAK

5.2.1 SANITATEA

5.2.1.1 HORNIDURA PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOAK

- EKITATE ARRAZOIENGATIK: Sanitatea lehentasunezko ondasun bat da. Sektore Publikoak biztanle guztientzat behar hainbesteko kontsumo maila bermatu behar du, kontsumoa maila ekonomikoaren arabera ez izateko.

- ERAGINKORTASUN ARRAZOIENGATIK: Sanitate-zerbitzuen merkatuan merkatu-akats batzuk ematen dira, zeintzuek eskuhartze publikoa eskatzen dute:
 - 1)Konkurrentzia ez-perfektua.
 - 2)Kontsumoan lehiaketasunik eza
 - 3)Kanpo-eraginak
 - 4)Informazio ez-perfektua
 - 5)Merkatu ez-osoak

1) Konkurrentzia ez-perfektua

Ospitalean trataera batzuek monopolio naturalen ezaugarriak dituzte (kostu finkoak oso altuak, batez ere teknologiaren ondorioz). Zerbitzu batzuetan langileek lortu behar duten kualifikazio-maila oso altua izan behar denez, zerbitzu hau ospitale zehatz batean zentralizatuta egotea komenigarria. Landako guneetan eskaria eskasa da, beraz, jarduera pribatua ere eskasa.

2) Kontsumoan lehiaketasunik eza

Osasun kolektiboa babesteko eta bultzatzeko programak ondasun publikoak dira, hau da, biztanle guztiak aldi berean programa horien onuradunak izan daitezke (airearen kalitatea bermatzeko egindako kontrolak, zabalduetako informazio epidemiologikoa,...). Hornidura-maila baxuegia ez izateko eta kontsumoan bazterketarik ez aplikatzeko eskuhartze publikoa beharrezkoa izan daiteke.

3) Kanpo-eraginak

Sanitatean kanpo-eragin positiboak ugariak dira, agente batzuen jarduerak jarduera horretan parte hartzen ez duten gizabanakoentzat onurak sortuz (griperen aurkako txertoa erabiltzeak, COVID-19aren aurrean kalera ez irtetzeak... kutsapen-maila gutxitzera laguntzen dute, adibidez). Kanpo-eragina barruratzeko eskuhartze publikoa garrantzitsua izan daiteke. (COVID-19aren aurreko erregulazioa, adibidez)

4) Informazio ez-perfektua

Eskariak duen informazioa eskasa da. Orokorrean, sanitate-zerbitzuen erabiltzaileek ez dituzte kontsumori buruzko erabakiak hartzen (egin behar diren frogak, botiken preskripzioa, jarraituko den trataera,..). Medikuek kontsumoa erabakitzen dute, hau da, eskaintzak eskaria erabakitzen du, gehiegizko kontsumo bat bultzatzeko arriskuarekin.

5) Merkatu ez-osoak

Gaixotasun bati aurre egiteko kostuak aseguru baten bidez estali ahal dira. Hala era, mediku-aseguru pribatuen merkatuan arazoak sortzen dira:

- Aurkako hautespenaren arazoa: gaixotasun edo istripu bat izateko arrisku ezberdineko pertsonak daudenez, itxarondako batez besteko arriskuaren arabera primak ezartzen dira. Arrisku baxua dutela pentsatzen duten pertsonak ez badute aseguru erosten eta soilik arrisku altua dutenek erosten badute, honek aseguru-etxeak porrot egitea eta kasu batzuetan merkaturik ez egotea inplika dezake. Arazo honen aurrean esku-hartze publikoa derrigorrezko aseguruak izan daitezke, hornidura publikoa guztiz beharrezkoa izan gabe.

Baino aseguru pribatuetan merkatuetan arazo gehiago daude hornidura publiko orokor bat, hau da, aseguru-publikoak, eska dezaketena: Trukaketa-arriskua:

- Asegurua erosi duenak gaixotasun edo istripu bat egotearen probabilitatean edo bere tamainan eragin ahal duenez, estaldura mugatzen da. Gaixotasun edo istripu bat izateko arriskua oso altua denean, primak oso altuak izango dira edo asegurua ez lortzea gerta daiteke. Egoera hau justua ez dela uler daiteke. Nahiz eta errekursoak eduki, gizabanako batzuek arriskua ez estaltzea gerta daiteke. Ekitatearen ideia paternalista aplikatuz, horiek ere babestea beharrezkoa izan daiteke.

5.2.1.2 HORNIDURA PUBLIKOAN BI EREDU mota bereiz daitezke:

1. Gizarte Segurantzaren osasun sistema.

Finantzaketa: lan-etekinen gaineko zergen bidez (Gizarte Kotizazioak esaten zaie)
 Estaldura: printzipioz, langileak eta haien senideak Gizarte Segurantzaren sistema eta aseguru pribatuak antzekoak dira. Hala era, Gizarte Segurantzaren derrigorrezkoa da eta ordainketak (kotizazioak) errentaren araberrakoak dira. Aseguru pribatuak borondatezkoak dira eta ordaindutakoa (prima) estaltzen den arriskuaren araberrakoa da. Beraz, Gizarte Segurantzaren sistema batean birbanaketa neurri batean ematen da.

2. Osasun Zerbitzu Nazionala.

Finantzaketa: Estatuaren sarrera orrokoren bidez Estaldura: unibertsala eta "dohainekoa".

Gizarte segurantzaren abantaila: Gehiegizko kontsumoa mugatzeko egokiagoa izan daiteke. Zerga zehatz bat ordainduz estaltzen da zerbitzuaren kostua, beraz, erabiltzaileek hobeto ikusten dute sistemaren kostua. Osasun Sistema Nazionalaren abantaila: Ekitatiboagoa da.

- Estaldura unibertsala da.
- Birbanaketa handiagoa da. Zerga guztien bidez lortutako errekursoak erabiltzen dira (gizarte kotizazioak proportzionalak dira eta lan-etekinen gainean baino ez dira aplikatzen).

Gizarte Segurantzaren osasun sistema eta Osasun Zerbitzu Nazionala hornidura publikoaren mekanismoak dira. Baina, hornidura hau, ekoizpen publikoaren bidez edo ekoizpen pribatuaren bidez eman daiteke.

5.2.2 HEZKUNTZA

5.2.2.1 HORNIDURA PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOAK:

1. Hezkuntza lehentasunezko ondasun bat da. Sektore Publikoak biztanle guztientzat behar hainbesteko kontsumo maila bermatu behar du, hezkuntza, berez, "ondasun" bat baita.
2. Hezkuntzak sortzen dituen kanpo-eragin positiboak barnesartzea.
3. Desberdintasun ekonomikoak murriztea. Datuen arabera, hezkuntza-mailaren eta sarrera-mailaren artean korrelazio positiboa ematen da. Batez beste, hezkuntza maila handiagoa duen gizabanakoak lortzen dituen sarrerak altuagoak dira
 - a. Hezkuntza-maila eta sarrera-mailaren arteko lotura azaltzeko BI TEORIA daude:
 - i. **Giza Kapitalaren Teoria (Becker, 1964)** Hezkuntzak gizabanakoen produktibitatea handitzen du. Horregatik, hezkuntza lortzea inbertsio bat da, horren etekinak etorkizunean lortutako sarrera altuagoak izanik.

- ii. **Iragazkiaren Teoria (Spence, 1974)** Hezkuntzak ez du gizabanakoen produktibitatea handitzen, baizik eta gizabanakoen produktibitatearen seinalea da. Enpresariak langileak kontratatzerakoan hezkuntza-maila erabiltzen dute langileen berezko gaitasunak identifikatzeko. Bi teoria horien arabera, hezkuntzan inbertitzea errentagarria izango litzateke (etorkizunean sarrerak handiagoak). Bi teoria horien arteko desberdintasuna: Giza Kapitalaren Teoriaren arabera, hezkuntzan egindako gastua eraginkorra izango litzateke. Hala ere, hezkuntza iragazki bat baino ez bada, gastua ezeraginkorra izango litzateke, merkeagoak diren beste iragazki batzuk erabil baitaitezke (adibidez, testak).
- 4. Merkatu ez-osoan arazoa: Merkatuan hezkuntzarako finantzaketa lortzea zaila da (ikasteko mailegua eskatzean eman daitekeen berme bakarra etorkizuneko balizko etekinak/sarrerak baino ez direlako).

5.2.2.2 HEZKUNTZAREN HORNIDURA PUBLIKOA:

Eskuhartze publikoa hezkuntza-maila desberdinetan desberdina da.

- **Oinarrizko hezkuntza** (lehenengo eta bigarren hezkuntza) derrigorrezkoa eta dohainekoa da. Justifikazioak: hornidura publikoa justifikatzeko aipatutakoak kontuan hartzeaz gain, hezkuntza-maila horren onuradunak adin txikikoak dira eta gerta daitezke gurasoek hezkuntza ondo ez baloratzea edo errekurtsioak ez izatea.
- **Goi mailako hezkuntzan:** Gizabanakoen eskuetan usten da erabakia. Prezioa subentzionatzeko, esku-hartze publikoa justifikatuta egon daiteke: ikasketak partzialki dohainekoa izatea (ordaindu behar den prezioa ekoizpen kostua baino baxuagoa) eta errekurtsorik ez dutenentzako bekak ematea. Batzuen ustez, subentzionatuta egotea ez da eraginkorra, ezta ekitatiboa ere. Maileguen sistema bat proposatzen dute.

5.2.3 ETXEBIZITZA

5.2.3.1 PARTE-HARTZE PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOAK:

Herrialde guztietan, Sektore Publikoak POLITIKA ezberdinak erabiltzen ditu etxebizitzaren erosketan, alokairuan eta birgaikuntzan laguntzeko.

Arrazoiak:

- Kanpo-eragin positiboak (edertasunak ongizatea, duintasunbaldintzetan bizitzeak delinkuentzia ...)
- Etxebizitza "lehentasunezko-ondasun" bat izatea (jende guztiak du duintasunez bizitzeko eskubidea)

5.2.3.2 ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK

ZERGA PIZGARRIAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan etxebizitzaren eskuraketa bultzatzeko zerga-onurak aplikagarriak izan daitezke (zerga-ordainketa txikiagoa egiteko). Adibidez, Lurralde Historikoetan aplikagarria den Foru Araudian onartuta dauden zerga-onurak bi dira:

1. Ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatiko salbuespena: Ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako gainbalioa salbuespena egon daiteke (hau da, ez dago

zergatuta), baldin eta eskualdaketan lortutako zenbatekoa berrinbertitzen bada beste ohiko etxebizitza batean

Arazoak:

- Justifikazioa (Zergatik ez beste elementu batzuekin? Zergatik lagundu behar zaio jadanik etxebizitza bat duenari?)
 - Salerosketetarako pizgarriak sortzen dira eta, horren ondorioz, etxebizitzaren prezioak gora egitea gerta daiteke.
2. Ohiko etxebizitza eskuratzeagatik kenkaria eta ohiko etxebizitza alokatzeagatik kenkaria: Urtean ohiko etxebizitza eskuratzeko/alokatzeko ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat kuotan kengarria izan daiteke (muga batekin).

Arazoak:

- Ekitate-arazoak: Errenta edozein dela ere ematen dira. Laguntza erregresiboak dira (errenta altuko gizabanakoek aplikatzen duten kenkariaren garazia handiagoa izateagatik).
- Eraginkortasun-arazoa: Laguntzaren traslazio-arriskua. Kenkariaren ondorioz etxebizitzaren prezioak gora egitea gerta daiteke (onuradunak saltzaileak edo finantza-erakundeak izanik)

ALOKAIRUEN KONTROLA

Sektore Publikoak, errenteroa babesteko, alokairuen gehieneko preziogehikuntzak eta kontratuen gutxieneko iraupena arautzen ditu.

Arazoak:

- Kontrolen zilegitasuna zalantzan (Sektore Publikoak jabetza pribatuaren erabilera mugatzen duela esaten da).
- Efectibotasuna zalantzan (kontrolaren ondorioz, alokairuan dauden etxebizitzaren kantitatea eskasa da).

ETXEBIZITZEN ERAGINTZA PUBLIKOA

Sektore Publikoak etxebizitzaren eraikuntza sustatzen du, etxebizitza horiek subentzionatutako prezioetan alokatzen edo saltzen ditu. Etxebizitza hauetako bat lortzeko, gizabanakoek baldintza zehatz batzuk bete behar dituzte (adibidez, errekurtsioei dagokienez, maila zehatz bat ez gaintzea).

- Arazoak: kalitatea, kokalekua, errenta-mailaren arabera segregazioa,...

SUBENTZIO ZUZENAK

Sektore publikoak errenta baxuko gizabanakoei eskuraketa-prezioren zati bat edota maileguaren interes-tasa subentzionatzen die. Diru-laguntza horiek lortzeko, baldintza zehatz batzuk bete behar dira (adibidez, eskuraketa-prezioak gehieneko muga bat ez gaintzea).

Arazoak:

- Traslazio-arriskua (zerga-pizgarrietan baino txikiagoa, beren aplikazio eremua baxuagoa delako).
- Etxebizitza erosteko arazoak izan ditzaketan errenta ertaineko familia asko kanpoan gelditzen da

5.3. PRESTAZIO EKONOMIKOAK: ERRENTAK ORDEZKATZEKO PROGRAMAK POBREZIAREN AURKAKO PROGRAMAK

5.3.1 ERRENTAK ORDEZKATZEKO PROGRAMAK

EZAUGARRIAK:

- Gizabanakoentzat kontrolaezina den edozein kausaz galtzen diren lan-errentak ordezkatu nahi dituzte orokorrean beren zenbatekoa “galdutako” errentaren menpe dago.
- Gutxieneko kotizazio-denboraldia eskatzen da onuradun izateko.
- Derrigorrezko partaidetza langile eta enpresentzat

Beraz aseguru pribatuen antzekoak, baino 3 ezberdintasun:

- Derrigorrezkotasuna
- Prestazioak kalkulatzeko irizpide aktuarial eta birbanakorrak nahasten dira.
- Helburu bikoitza: estaldura eman + jendea aurreztera behartu

Gizarte Estaldurarako Programak edo Gizarte-Aseguruak esaten zaie.

5.3.1.1 ERRENTAK ORDEZKATZEKO PROGRAMEN JUSTIFIKAZIOA

EOP: “Sektore Publikoak gestionatutako derrigorrezko estaldura edo aurrezki programak”

1) ZERGATIK DERRIGORREZKOAK?

- **Paternalismoa:** Aurrikusleak ez diren gizabanakoekin: derrigorrezkoak ez balira estaldurarik gabe geldituko lirateke
- **Kanpo eragin negatiboak:** Programa hauen derrigorrezkotasunak pobrezia egoera asko saihesten dituzte, hauek sortzen dituzten kanpo eraginak eragotziz eta pobrezia egoeretan ezartzen diren mekanismoen beharra murriztuz.
- **Informazio asimetrikoa:** Aseguru hauen existentzia bermatzeko, bereziki aurkako hautespenaren arazoagatik (langabezia-aseguruaren kasuan, adibidez)

2) ZERGATIK PUBLIKOAK?

- Gizarte-arriskuak (eraginkortasuna): Arrisku batek gizarte-arriskua da, ezbeharra gertatuz gero populazioaren portzentaje handi bati eragiten bado aldi berean (krisi ekonomiko larri bat, adibidez). Aseguru pribatuek ezin dituzte gizarte arriskuak estali (porrot egiteko arriskua), baino publikoek bai (zorria jaulki, zerga gehiago...)
- Bi ekitate arrazoi:
 - **Ordaindu beharreko “primekin” erlazionatuta:** Aseguru pribatuetan: primak arriskua Jarrera ezekitatiboa
 - **Prestazioen zenbatekoarekin erlazionatuta:** Aseguru pribatuek: Irizpide aktuarialak baino EOP: (Aktuarialak + birbanakorrak) Birbanaketa funtzio publikoa denez, EOPak ere
 - **Aseguru pribatuek baino administrazio kostu baxuagoak,** programa bakar unibertsala gestionatzen delako

5.3.1.2. ESPAINIAKO ERRENTAK ORDEZKATZEKO PROGRAMAK:

PENTSIO KONTRIBUTIBOAK:

- Erretiro pentsioak (garrantzitsuena)
- Biziraupen-pentsioak: alarguntza, zurztasuna, familiakoen aldekoak
- Balio-ezintasun iraunkorragatiko pentsioak LANGABEZI ASEGURUA
BALIOEZINTASUN IRAGANKORRAGATIKO PRESTAZIOAK

5.3.2 POBREZIAREN AURKAKO PROGRAMAK

EZAUGARRIAK:

- Helburua: Baliabide urriko gizabanakoei gutxieneko errenta bat bermatzea.
- Orokorrean, ez dute gutxienezko kotizazio denboraldia eskatzen .
- Zenbatekoa “finkoa” da, egoera berdinean dauden gizabanakoentzat.

ESPAINIAKO PROGRAMAK:

- PRESTAZIO EZ-KONTRIBUTIBOAK:
 - Pentsio ez-kontributibuak (erretiroa eta ezintasuna)
 - Prestazio familiar ez-kontributiboak
- LANGABEZI-SUBSIDIOA
- KKAAen GIZARTERATZEKO ERRENTA MINIMOAK

ARAZOAK ETA ESKEMA ALTERNATIBOAK

Arazoak:

- Zenbateko txikiak
- Jende asko programetatik kanpo
- Antzeko pobrezia egoeretan dauden pertsonen transferentzia ezberdinak jaso, dagokien programaren arabera

ESKEMA ALTERNATIBOAK: Minimo ziurtatuen programak eta Errentaren gaineko Zerga Negatiboa

EKONOMIA PUBLIKOAK: GASTUA
2021-2022 IKASTURTEA
1 PRAKTIKA EBALUAGARRIA

Izen-abizenak:

1.- Espainiako sektore publikoaren ondorengo azpisektoreak kontsidera itzazu:

- 1) Administrazio zentrala
- 2) Estatua
- 3) Lurralde administrazioak
- 4) Sektore Publikoa zentzu zabalean
- 5) Enpresa Publikoak
- 6) Administrazio Publikoak
- 7) Erakunde Autonomoak
- 8) Udal Korporazioak
- 9) Enpresa Publiko finantzarioak
- 10) Sektore Publikoa zentzu hertsian

a) Bizkaiko Foru Aldundia, zein azpitaldetan baneratzzen da?

- 0.33 mundu Administrazioa (3)
- S.P. zentzu zabalera (4)
- 0.33 AA.PP.ek (6)
- S.P. zentzu hertsian (10)
- 0.33 Enpres Publikoak (5)
- S.P. zentzu zabalera (4)

c) Europako Kontu Sistemaren erabilitako definizioak kontuan hartuz, bi erakunde hauek burutzen dituzten gastu eta sarrera-jarduerak nolakoak diren esan ezazu.

BFA → Gesta jarduerak:

- Selwtdare ituzterre et dirre
- oud. etc zars. horwidus
- eud. et -benestassu Sinbuides

→ Diru - sarrak:

- Bost S. Ekonomia bere multietik
- erakundeak (enpresak)

Gues → Gish jarduerak: Siltioi dirre zentsurari ekuiperre
 Diru - sarrak: silwch - sarrak

0.33 Kapital Kreditu
 0.33 Balantze 977 175
 0.33 Asuntze 100

2.- Ekitaldi zehatz batean herrialde bateko AAPPei buruz honako informazioa duagu:

Kontsumo Publikoa.....	200
Kapitalaren gaineko Zergak.....	175
Errentaren gaineko Zergak.....	350
Gizarte-prestazioak.....	100
Inbertsio Publikoa.....	150
Zor Publikoaren Interesak.....	50
Emandako kapital-transferentziak.....	150
Jasotako transferentzia aruntak.....	100

Aurreko informazioaren arabera:

a) Eragiketa arunten kontua eta Kapital kontua egim itzazu

Asuntze 977 350
Jas. Traf. arrak 100
 0.33 Balantze 977 350
 0.33 Asuntze 100

Asuntze 977 350
Jas. Traf. arrak 100
 0.33 Balantze 977 350
 0.33 Asuntze 100

b) ondorengo indizeak kalkula eta interpreta itzazu:

1) AAPPen Finantzaketa-Ahalmen edo Beharra

0.33 AA.PP.ek Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100

0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100

2) Defizit edo superabit primarioa

0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100

0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100
 0.33 Asuntze 100

3.- Aurreko galderarekin jarraituz:

a) Aurreko kontuekin bateragarria den finantza-kontu bat osa ezazu, ondorengo informazioa barneratuz:

- Jaukitako pasiboak = 600
- Amortizatutako aktiboak = 500
- Erositutako aktiboak = 200

Finantze - kuentak

Fin. Pres. Sarr. Ald. Gests. Fin. Akt. Sarr. Ald. Gests.
 Jaukitutako Pres. Sarr. 600 Erositutako Akt. Sarr. 200
 Amortizatutako Pres. Sarr. ? Amortizatutako Akt. Sarr. 500

0.5

$$\begin{aligned} \text{Soldos} &= 25 = \text{Fin. Pres. Ald. Gests.} \\ &\quad - \text{Fin. Akt. Ald. Gests.} \\ &= \text{Fin. Pres. Ald. Gests.} - (-300) \end{aligned}$$

$$\Rightarrow \text{Fin. Pres. Ald. Gests.} = 25 - 300 = -275$$

b) Aurreko ataleko finantza-kontua erabiliz, ondorengo indizeak kalkulatu izazu:

- 1) Zorpetze-ahalmen edo beharra (gordina)
- 2) Zorpetze-ahalmen edo beharra (garbia)

0.5

$$\begin{aligned} \text{Zorpetze Ahalmen edo Beharra} \\ (\text{Gordina}) &= \text{Jaukitutako Pres. Sarr.} \\ &= 600 \end{aligned}$$

0.5

$$\begin{aligned} \text{Zorpetze Ahalmen edo Beharra} \\ (\text{Garbia}) &= \text{Fin. Pres. Sarr. Ald. Gests.} \\ &= -275 \end{aligned}$$

4.- AAPPen Aurrekontuak kontsideratu izazu

a) Ondorengo baieztapenak zuzena ala faltsuak diren azal ezazu:

1.- "Aurrekontuetan diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka ematen bada, oreka ekonomikoa dagoela esaten da"

Faltsua. Oreka kerkaleko diruak
 esan nahi du, desoreka ekonomikoak
 (defizit) presioak izan behar dira.
 Aurreko er-berrikuntza desoreka.
 Sailkapen funtzionala da AAPPen diru-sarrerak sailkatzen dituen bakarra.

Faltsua. Diru-sarrak sailkatzea
 diruak bereizte, sailkapen ekonomikoak
 da. 0.25

3.- Sailkapen organikoak gastu-politika ezberdinen arabera sailkatzen ditu AAPPen gastuak.

Faltsua. Oriburu kudeatzen diren
 arloak sailkatzen dira. 0.25
 Gastu-politika ezberdinean
 arloak sailkatzen dira.

b) Aurrekontuetan erabiltzen diren sailkapen artean, zein erabiliko zenuke, Etxebizitzara sarbidea errazteko erabiliko den errekurtso publikoaren zerbatekoa ezagutzeko?

Funtziak

Trafikoko Buruzagitzak gastatuko duen zerbatekoa ezagutzeko?

Oriburuak

Inbertsio Publikoaren zerbatekoa ezagutzeko?

Gizarte Kotizazioen bilketa ezagutzeko?

Ekonomikoak

Ekonomikoak


Ekonomikoak

Ekonomikoak

EKONOMIA PUBLIKOA: GASTUA
2021-2022 IKASTURTEA
2 PRAKTIKA EBALUAGARRIA

Izen-abizenak:

1.- X ondasunaren merkatuan dagoen monopolio artifiziala ondorengo grafiko honetan adierazita dago:



Monopolistaren orekatik oreka eraginkorrera mugitzearen ondoriozko gizarte irabazi garbia kalkulatu eta grafikoki adieraz ezazu, baita implikaturik dauden agenteen arteko irabazi horren banaketa ere.

$$KS(x_M) = \frac{(100 - P_M) \cdot x_M}{2} = \frac{10 \cdot 10}{2} = 50$$

$$KS(x_e) = \frac{(100 - P_e) \cdot x_e}{2} = \frac{20 \cdot 20}{2} = 200$$

0.25 $\Delta KS_{(x_M \rightarrow x_e)} = 150$

$$MM(x_M) = x_M \cdot (P_M - K^*(x_M)) = 10 \cdot (90 - 80) = 100$$

0.25 $MM(x_e) = 0$
 $\Delta MM_{(x_M \rightarrow x_e)} = 100$

0.25 $GIG_{(x_M \rightarrow x_e)} = \Delta KS + \Delta MM = 150 - 100 = 50$

2.- Aurreko galderarekin jarraituz, merkatu akats hau zuzentzeko, Sektore Publikoak "unitate bakoitzeko subsidio bat" ezartzen du eta, hau finantzatzeko, zerga distorsionatzaile bat erabiltzen du, bildutako euro bakoitzeko 1,1 euroko gizarte kostua sortuz. Pena merezi al du subsidio horren bidezko merkatu akatsaren zuzenketa? Zure erantzuna justifikatu ezazu.

$$Un. b. b. v. s. s. = KM_j(x_e) - SM_j(x_e) = 80 - 60 = 20$$

$$Guztira = un. b. s. s. = x_e \cdot 20 = 20 \cdot 20 = 400$$

0.25 $GIG = 616 + [Subsidio - 2BSK]$
 $= \Delta KS + \Delta MM + [400 - 400 \cdot 1.1]$
 $= 50 + [-40] = 10 > 0$ **Pena merezi du.**

0.25 **Pena merezi du.** (Inklusioa) **Penaren ondoriozko irabazirik ez dagoela.**
 3.- Ondorengo monopolio natural hau kontsideratu ezazu: **haztegi (100-200)**
 $K^*(X) = 160 - 2X$ (Batez besteko kostuen funtzioa)
 $KM_j(X) = 160 - 4x$ (Kostu marginalen funtzioa)
 $P(X) = 200 - 6X$ (Eskari-kurba)
 $SM_j(X) = 200 - 12X$ (Sarrera marginalen kurba)

a) Merkatua erregulatu nahi badugu galerak saihesten direlarik (eta unitate guztiak prezio berdinean salduz), zein ekoizpen-maila eta prezio ezarri beharko lirateke?

0.25 $P(x) = K^*(x)$ **erabaki behar**
 $200 - 6x = 160 - 2x \Rightarrow x^* = 10$
 $P(x^*) = 200 - 6 \cdot 10 = 200 - 60 = 140 = P^*$

b) Merkatua erregulatu nahi badugu monopolistaren ez-eraginkortasuna guzuz zuzenduz, zein ekoizpen-maila eta prezio ezarri beharko lirateke?

0.25 $P(x) = KM_j(x)$ **erabaki behar**
 $200 - 6x = 160 - 4x \Rightarrow x_e = 20$
 $P(x_e) = 200 - 6 \cdot 20 = 200 - 120 = 80 = P_e$

4.- Kontsumo-ondasunei dagozkien ondorengo ezaugarriak kontsidera itzazu:

- a) Ekoizpen-kostu marjinala nulua duen ondasuna.
 - b) Sektore Publikoak soil-soilik hornitzen duen ondasuna.
 - c) Kontsumoan lehiakidetasunik gabeko ondasuna.
 - d) Ez-baztergarria den ondasuna.
 - e) Sektore Publikoak soil-soilik ekoizten duen ondasuna.
- Ezaugarri horien artean, zeintzuk dira ondasun publiko GUZTIEK betetzen dituztenak?
Erantzuna justifika ezazu.

Ham da, erabilteko behin baten kontsumoak et du jatorria pibarekeri
duen kategoria, beraz, erabilteko behin baten KHj nulua da. Erabilteko ham
erabilteko bade, ondasun publiko pibarekeri dela esaten da. Erabilteko kategoria
hendituen kontsumo lehiakidetasun sarreren denean, ondasun publiko
et-pibarekeri dela esaten da.

5.- Ondasun publiko/pribatuen testuinguruan, "Mediku-ikerikuntza" ondasuna kontsidera ezazu. Ondasun horren ezaugarriak azal itzazu eta, horiek kontuan hartuz, merkatuaren hornidura eman daitekeen justifika ezazu.

Kontsumo lehiakidetasunik et emateko,
ham da, ikuntzaren bitartekoa
giteko jatorria erabil dezake (adibidez,
koronabirusaren aurkako txerak lortzen bade)

\Rightarrow Ondasun Publiko bet da

Barterioa den ondasun publiko bet da, 0.25
ham da, patente beten bidez asmakuntzaren
erabilteko mugak ez diren de metio bet esketuz
erabilteko.

Hondare publiko emee ditoke
(bera et-erabilteko itzazu da,
kontsumo eskise inonik etz
ekipone eskise itzazk)

0.25

0.5

EKONOMIA PUBLIKOA: GASTUA
2021-2022 IKASTURTEA
3 PRAKTIKA EBALUAGARRIA

Izen-abizenak:


1.- Bi gizonako (A eta B), bi ekoizpen-faktore eta bi kontsumo ondasun (G eta Y) dituen ekonomia bat kontsidera ezazu. G ondasun publiko bat da, A eta B gizonen bakoak eskariak edo mozkin marjinalen kurbak honako hauek izanik:

$$P_A(G) = 100 - G_A$$

$$P_B(G) = 200 - G_B$$

G ondasunaren ekoizpen-kostu marjinalen kurba hau da: $KM_j(G) = 100$

a) G ondasunaren hornidura maila eraginkorra kalkulatu eta grafikoki seinala ezazu.



O.S

Sumua (sumua Saldutze):

$$OEM_{G_Y} + OEM_{G_Y} = TEM_{G_Y}$$

$$P_A(G) + P_B(G) = KM_j(G)$$

$$(100 - G_A) + (200 - G_B) = 100$$

$$300 - 2G = 100$$

$$\Rightarrow G^* = 100$$

O.S

b) Erantzuna ezberdina al da ondasuna baztergarria ala ez-baztergarria denean? Erantzuna justifikatu ezazu.

Badiu dio berturjune edo

ez-berturjune irates, Gurtete
 Kerkhete Jandine esultreke
 aukere irate de to ete irate
 lirkhete markei marjinaler kurtur
 hantur behen de (Samuelson-er Saldutze)

O.S

c) Zein da hornidura-maila eraginkorren A eta B gizonen arteko banaketa (G_A^* eta G_B^*)?

$G_A^* = G_B^* = 100$ Ondere publiko bati
 denot, gizonen kurturjune 6*
 kerkhete esult de kete, mabit ete
 lirkhete markei marjinaler desbadi
 irate (B-K jehitje Saldutze du)

O.S

d) Sektore Publikoak informazio perfektua izango balu, zeintzuk izango lirateke G hornitzearen prezio pertsonalizatuak edo Lindhal prezioak?

$$P_A^*(G) = 100 - G = 100 - 100 = 0$$

$$P_B^*(G) = 200 - G = 200 - 100 = 100$$

6* kerkhete esultre p.t.k
 lirkhete balerrio / markei marjinaler

O.S

2.- Enpresa konkurrentzial batek X ondasuna ekoizten du, ekoizpen prozesu horretan hurbil dagoen hiri baten hiritarrentzat kaltegarria den kutsadura jaultzitzen delarik.

Demagun:

$Sp(X)=8X$ Enpresaren eskaintza-funtzioa edo KMj pribatua

$Dp(X)=300-2X$ X ondasunaren eskari-kurba

$Se(X)=2X$ Hiritarrei sortzen zaien kalte marjinalaren funtzioa

Kanpo-eragina barruratzearan lor daitekeen Gizarte Irabazi Garbia kalkulatu eta grafikoki adieraz ezazu.

$Sp(x) + Se(x)$
 $8x = 300 - 2x$
 $\Rightarrow x_K = 30$

$Sp(x) + Se(x) = Dp(x)$
 $8x + 2x = 300 - 2x$
 $\Rightarrow x_e = 25$

$GIG = \frac{Se(x_K) \cdot (x_K - x_e)}{2}$
 $x_K \rightarrow x_e$
 $= \frac{(2 \cdot 30)(30 - 25)}{2}$
 $= 150$

3.- Aurreko galderekin jarraituz, kanpo-eragina barruratzeko jabetza-eskubideak jaultzizaleei esleitzen bazazkizte,


- a) Zein izango da negoziatzen hasi aurretiko ekoizpen maila eta zein izango da negoziatetarekin lortutakoa?
- b) Zein izango da negoziaketan jaultzizaleek jaso nahi duten gutxieneko konpensazioa?
- c) Zein izango da negoziaketan hartzaileek ordaindu nahi duten gehiengoko konpensazioa?

a) Noiz ere aukeratik, $x_K = 30$ (jaultzizaleek kutsadura ehol dute jabetza-eskubideak duteleku) negoziatetarekin, $x_e = 25$ (arteko 5 unitate eta kutsadura/kutsamendua dutele indereleku/kompensazio dutele)

b) $Gutxieneko konpensazioa = \frac{Se(x_e) \cdot (x_K - x_e)}{2} = \frac{Se(x_e) \cdot (30 - 25)}{2} = 125$

c) $Gehiengoko konpensazioa = \frac{Se(x_e) \cdot (x_K - x_e)}{2} = \frac{Se(x_e) \cdot (30 - 25)}{2} = 125$

4.- Aurreko galderekin jarraituz, merkatu-akatsa zuzentzeko Sektore Publikoak zerga pigoiar bat ezartzen badu, merkatu-akats horren jaultzizaleek izango duten irabazi/galera kalkulatu eta grafikoki adieraz ezazu.



$Tp = Se(x_e) = 2 \cdot 25 = 50$
 $B.I.V.K.e.h = Tp \cdot x_e = 50 \cdot 25 = 1.250$

$\text{Zamalkuturiceleer jelerare} = \sqrt{(K.S + P.S) + B.I.V.K.e.h} = 0.9$
 $= \sqrt{125 + 1.250} = 1.375$

Handwritten notes:
 G.I.G. (0.75)
 B.I.V.K.e.h (0.75)
 $\sqrt{K.S + P.S}$

EKONOMIA PUBLIKOA: GASTUAK
2021-2022 IKASTURTEA
4. PRAKTIKA EBALUAGARRIA

Max. 1.- Azaldu kontzeptu hauek: ekitate bertikala, ekitate horizontala, aukera-berdintasuna eta ekitate 0,14 kategorikoa, eta erlazionatu politika hauekin:

- a) Haurren derrigorrezko txertaketa-programa. **Ekitate kategorikoa**
- b) Osasun-zerbitzuetarako sarbidean sexuaren arabera bereizketarik ez egotea. **Ekitate horizontala**
- c) Doakotasuna oinarritzko osasun-zerbitzuetarako sarbidean. **Aukera-berdintasuna**
- d) Sendagaiengatik ordaintzen dena gizabanakoen baliabide-mailaren arabera egotea. **Ekitate bertikala**


Ekitate bertikala: ikuspegi honek sektore publikoak nola ezberdindu behar dituen modu optimo batean errenta edota baliagarritasun ezberdina duten gizabanakoak du oinarri.

Ekitate horizontala: ikuspegi honen arabera sektore publikoak berdin tratatu behar ditu garrantzizko aspektuetan berdinak diren gizabanakoak.

Aukera-berdintasuna: gizabanako guztiek errenta edota baliagarritasuna lortzeko aukera berdinak izan behar dituzte. Aukerak berdintzea, "ex ante" berdintasuna suposatzen du. Irizpide indibidualista da, gizabanakoen lehenetsunak errespetatzen dituelako.

Ekitate kategorikoa: emaitza zehatz batzuen berdinketa eskatzen duen irizpidea da, indibidualista ez dena eta "ex post" erakoa. Sektore publikoak lehenetsunezko ondasun zehatz batzuen banaketa eta gutxieneko kantitate bat kontsumitu ahal dugula bermatu behar du, kasu batzuetan haien kontsumora behartuz (ikuspegi paternalista).

Max. 2.- Demagun ekonomia konkurrentzial bati dagokion oreka konkurrentziala X esleipenean kokatuta dagoela. 0,15 **a)** Adierazi grafikoa birbanaketa boluntarioen bidez lortutako esleipena eta arrazoitu erantzuna. **b)** Azaldu zein arrazoiengatik egongo litzatekeen justifikatuta sektore publikoaren esku-hartzea ekonomiaren eraginkortasuna hobetzeko gizabanako altruista asko daudenean. **c)** Adierazi grafikoki esleipen eraginkor guztiak eta azaldu ea eraginkortasunaren ikuspegitik azter daitekeen birbanaketa gehigarriak egitea.



- a) Birbanaketa boluntarioen bidez Z esleipena lortuko litzateke. X-tik Z-rainoko errenta-birbanaketak birbanaketa Pareto Eraginkorrak dira, bi gizabanakoen ongizatea handitzen dutelako, ondorioz, A prest egongo litzateke B-ri biak Z puntuan kokatzeko moduko errenta kantitatea transferitzeko.

- b) Kasu horretan, “aberats altruisten eskuetatik behartsuen eskuetarainoko errenta-birbanaketa” ondasun publiko batean bihurtzen da: Altruista batek errenta-transferentzia bat eginez gero, gainerakoek ere irabazten dute. Beraz, dohainezko erabiltzaileak izateko pizgarria izan dezakete. Sektore Publikoak, zerga eta transferentzien bidez, “boluntarioak” izan beharko liritekeen birbanaketa horiek bidera ditzake, ekonomiaren eraginkortasuna hobetuz.
- c) Esleipen eraginkorrak: Z eta Y puntuak bitartekoak dira (biak barne). Birbanaketa boluntarioek gehienez Z punturaino eramango gaituzte. Behin Z-n gaudela, birbanaketa gehigarriek B-ren baliagarritasuna handitu baino A-rena murriztu egingo dute, beraz ezin izango dira eraginkortasunaren ikuspuntutik epaitu. Birbanaketa gehigarriak epaitzeko, pertsona arteko baliagarritasun-konparaketak dira beharrezkoak.

Max. 0,06 **3.-** Erantzun itzazu Gizarte-Ongizateko Funtzioari buruzko galdera hauek:

a) Zein da bere definizioa?

Gizarte bateko justiziarri buruzko iritziak laburbiltzen saiatzen den funtzio bat da.

b) Nola esaten zaie grafikoki irudikatzeko erabiltzen diren kurbei?


Gizarte indiferentzi-kurbak (GIK).

c) Zer baldintza betetzea komeni da?

GOF batek ondorengo baldintzak betetzea desiragarria da:

- Indibidualismoa
- Anonimatua
- Ezberdintasunarekiko gorrotoa

Max. 0,15 **4.-** a) Adierazi grafikoan non lortzen den gizarte-optimoaren esleipena. b) Grafikoaren laguntzaz, arrazoitu ezazu birbanaketa tresna ez-neutralen bidez gizarte-optimoaren esleipena lor daitekeen eta horiek aplikatzearen ondoriozko eragina zein den. c) Sektore Publikoak soilik tresna birbanakor ez neutralak baditu, birbanaketa koaktiboak burutu beharko lituzke? Arrazoitu zure erantzuna grafikoaren laguntzaz.



- a) Gizarte-optimoaren esleipena: O esleipena da.
- b) Birbanaketa tresna ez-neutralen bitartez ezin da gizarte optimoaren esleipena lortu. Birbanaketa tresna ez-neutralek eraginkortasun kostuak eragiten dituzte, lortutako zerga bilketarekin konpentsa ezin daitekeen baliagarritasun galera bat sortuz, ondorioz, eragindako eraginkortasun kostuek Baliagarritasunaren Aukera-Muga barrurantz desplazatuko dute.
- c) Emaitza Z eta P esleipenak bitarteko bat bada, birbanaketa koaktiboak burutu beharko lituzke, Z-n baino gizarte ongizate handiagoa lortzen delako: Adibidez R esleipenean. Emaitza P eta Q esleipenak bitarteko bat bada, ez lituzke birbanaketa koaktiboak burutu behar, Z-n baino gizarte ongizate txikiagoa lortzen delako: Adibidez S esleipenean.